

AIGUASOL

Errenteriako Klimaren eta Energia Iraunkorraren aldeko Ekintza Plana 2020- 2030



ERRETERIA
UDALA



Pacto de las Alcaldías
para el Clima y la Energía
EUROPA

Erref: 05989

Bartzelona, 28/10/2021



Egileak

Idazle taldea: Kanpoko aholkularitza

AIGUASOL, sccl

Olga Barrachina, industria ingeniaria, senior aholkularia, koordinatzailea

David Caetano, industria ingeniaria, senior aholkularia

Alex Ivancic, industria ingeniaria, senior aholkularia

Iker Larre, industria ingeniaria, senior aholkularia

Martí Riera, arkitektoa, aholkularia

Diana Vaz, industria ingeniaria, aholkularia

Cybeles Nunziata, industria ingeniaria, aholkularia

Oihan Irazu, industria ingeniaria, junior aholkularia

Raúl Maza, industria ingeniaria, junior aholkularia

Talaio Koop

Beñat Irasuegi, aholkularia

Andoni Mikelarena, aholkularia

Errenteriako Udala

José Manuel Ferradás, Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria

Iñaki Azkarate, Ingurumeneko goi mailako teknikaria

Niko Bengoetxea, Iraunkortasuneko goi mailako teknikaria

Xabier Agirre, Hirigintza Saila

Uxue Arostegi, Hiri Mantentze Lanen Departamentua.



Luis Peña, Kirol Saila.

Iker Tolosa, Kultura Saila.

Mikel Amenabar, Trafiko, Garraio, Herritarren Segurtasun eta Babes Zibileko Arloa.

Eli Salaberria , Informatika

David Muñoz, Oarsoaldea Garapen Agentzia

Laguntzaileak

Energia mahaia

Errenteriako udalerriko herritarrak



Edukia

1. Laburpen exekutiboa	12
2. Aurrekariak	12
3. Helburuak	13
4. Hedadura	17
5. Lotutako udal planen mapa	18
5.1 Lotura maparen edukia	18
5.1.1. Helburuak eta ikuspegia 2050erako.....	19
Lege esparrua.....	19
Herriko diagnostikoa egiteko datuak	20
KEIEPa idaztean aplikatu beharreko ekintzak.....	20
5.2 Lotutako udal planen mapa.....	21
5.3 Denbora lerroa.....	22
6. Energia kontsumoen eta isurketen inbentarioa	23
6.1 Kokatzea.....	23
6.2 Udal mailako inbentarioa	24
6.2.1. Hipotesiak.....	24
6.2.2. Kontsumoen inbentarioa	25
6.2.3. Isurketen inbentarioa	29
6.3 Udalerrri mailako inbentarioa	32
6.3.1. Hipotesiak.....	32
6.3.2. Kontsumoen inbentarioa	32
6.3.3. Isurketen inbentarioa	37
7. Lehenengo ibilbide orria: Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana (EIEP)	40
7.1 2016ko berrikuspen ebaluazioa	41
7.2 2018ko berrikuspen ebaluazioa	42
7.3 Ekintzen egoeraren ebaluazioa eta itxiera 2020.....	42
8. Errenteriako Klima Aldaketara Egokitzeko Plana	50
8.1 Egokitzeko Planaren berrikuspena 2021.....	52
9. Eragile/agenteen mapa	57



10. Baliabideen mapa	64
10.1 Baliabide berriztagarriak eta hondakin baliabideak	64
10.1.1. Eguzki energia fotovoltaikoa eta termikoa	64
10.1.2. Geotermia	67
10.1.3. Bioenergia.....	67
Baliabideen egoera Euskadin	69
Bioenergiaren aprobetxamendua Erreterian.....	71
10.1.4. Hidraulikoa	71
10.1.5. Eolikoa	71
10.1.6. Hondar beroa	71
10.2 Eskaria tokiko energia berriztagarriekin asetzeko potentziala	73
11. Klimaren joera historikoak eta etorkizuneko proiektzioak.....	75
11.1 Sarrera	75
11.2 Klimaren bilakaera udalerrian	76
11.2.1. Azterketa metodologia.....	76
11.2.2. Egungo klima	77
11.3 Tenperaturen joeraren azterketa.....	80
11.3.1. Giro temperatura	80
11.3.2. Muturreko giro temperatura	81
11.3.3. Ondorioak	83
11.4 Klima aldaketaren ondorioak Erreterian	84
11.4.1. Eraikinen bero eta hotz eskariaren gaineko ondorioak	84
Berokuntzako egun graduen kalkulua	84
Hozkuntzako egun graduen kalkulua	85
11.4.2. Eraikin parkea birgaitzeko planen gaineko ondorioak.....	87
11.4.3. Espazio publikoaren gaineko ondorioak	87
12. 2030eko joera agertokia	89
12.1 Udalerriko egungo energia kontsumoaren laburpena.....	90
12.1.1. Batez besteko energia kontsumoa, sektorearen arabera	90
12.1.2. Batez besteko energia kontsumoa, sektorearen arabera.....	91
12.1.3. Batez besteko elektrizitate eta erregai kontsumoa, sektorearen arabera.....	91
12.1.4. Batez besteko kontsumo termiko xehatua, sektorearen arabera	92
12.1.5. Ondorioak	93



12.2	Joeraren azterketa, sektorearen arabera	93
12.2.1.	Etxebizitza sektorea	93
12.2.2.	Zerbitzu sektorea	95
12.2.3.	Garraio sektorea	98
12.3	2030eko erreferentziako joera agertokia	100
13.	Errenteriak klima aldaketaren aurrean dituen kalteberatasunen eta arriskuen ebaluazioa	103
13.1	Arriskuen eta kalteberatasunen berrikuspena eta eguneratzea.....	104
13.1.1.	Barne eta kanpo hirigintza.....	105
13.1.2.	Osasuna.....	106
13.2	Ondorioak.....	107
14.	Pobrezia energetikoa.....	108
14.1	Pobrezia energetikoaren ebaluazioa Errenterian	108
14.1.1.	Energia-gastuei aurre egiteko ahalegin ekonomikoaren adierazleari buruzko emaitzak	110
14.1.2.	Etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko ezintasunaren adierazletik lortutako emaitzak	111
14.1.3.	Azterketaren mugak eta ondorioak.....	113
15.	KEIEPeko ekintzak.....	115
15.1	Arintze-ekintzak	116
15.2	Egokitze-ekintzak.....	118
16.	KEIEParen 2030eko agertokia.....	119
16.1	Udala.....	120
16.2	Udallerria.....	122
17.	Parte-hartzea eta zabalkundea.....	125
17.1	Parte-hartzearen antolaketa:.....	125
17.1.1.	Helburuak.....	125
17.1.2.	Metodologia	125
17.1.3.	Lantaldeak/bilerak	127
17.2	Sare sozialetako eta beste bitarteko batzuetako komunikazioak.....	127
17.3	Kanpo-eragileek KEIEPean duten parte-hartzearen ebaluazioa	128
17.4	KEIEParen zabalkuntza.....	129
18.	Ekintzen fitxak.....	130
18.1	Arintze-ekintzen fitxak.....	130



18.2	Egokitzapen-ekintzen fitxak	270
19.	Erreferentziak.....	293
20.	Eranskinak.....	294
20.1	Fitxategi klimatikoak sortzeko metodologia	294
20.1.1.	Fitxategiak sortzeko tresna.....	294
20.1.2.	Isurketen agertokiak hautatzea	294
20.1.3.	Azterketa ingurunea hautatzea.....	294
20.2	Arriskuen eta kalteberatasunen berrikuspena eta eguneratzea.....	296
20.2.1.	Funtsezko kontzeptuak	296
20.3	Ekipamenduen eta ibilgailuen inbentarioak	297
20.3.1.	Ekipamenduen inbentarioa.....	297
20.3.2.	Argiteria publikoko koadroen inbentarioa.....	304
20.3.3.	Udal-ibilgailuen inbentarioa	308



Taulen aurkibidea

1. taula. Euskadiko Klimaren eta Energiaren Tokiko Planen helburuak	14
2. taula. Azken energiaren kontsumoak eta portzentajezko murrizketa 2007tik 2019ra eta 2020 - Udala	26
3. taula. Energia primarioaren guztizko kontsumoa - Udala	27
4. taula. Autokontsumotik eta beroa berreskuratzeko sistemetatik kontsumitutako azken energia	28
5. taula. Energia berriztagarrien ekoizpena - Udala	28
6. taula. Berotegi efektuko gasen isurketak eta portzentajezko murrizketa 2007tik 2019ra eta 2020ra bitarte - Udala	30
7. taula. Elektrizitate hornitzaileek sortutako CO ₂ -b isurketen konparazioa	31
8. taula. Azken energia-kontsumoak – Udalerria	33
9. taula. Azken energiaren kontsumoak eta portzentajezko murrizketa 2007tik 2019ra - Udalerria	34
10. taula. Energia primarioaren guztizko kontsumoa - Udalerria	35
11. taula. Energia berriztagarriaren ekoizpena - Udalerria	36
12. taula. Berotegi efektuko gasen isurketak eta portzentajezko murrizketa 2007tik 2019ra bitarte - Udalerria	37
13. taula. Berotegiko gasen isuriak – Udalerria	38
14. taula. Ekintzen egoeraren laburpen taula, sektorearen eta eremuaren arabera.	42
15. taula. Hainbat urtetan egindako inbertsioak, eremuaren eta sektorearen arabera.	43
16. taula. Hainbat urtetan aurreztutako BEG isurketak, eremuaren eta sektorearen arabera.	44
17. taula. Hainbat urtetan aurreztutako kWh-ak, eremuaren eta sektorearen arabera.	45
18. taula. Hainbat urtetan energia berriztagarriekin sortutako kWh-ak, eremuaren arabera.	46
19. taula. 2020. urtean aurreztutako kontsumoa, berriztagarriekin sortutako energia eta murriztutako isurketak.	47
20. taula. Hainbat urtetako €/CO ₂ tn adierazlea, eremuaren eta sektorearen arabera.	48
21. taula. Errenteriako Klima Aldaketara Egokitzeko Planeko ekintzen zerrenda	51
22. taula. Egokitzeko Planean sartutako eta dagoeneko burutako ekintza berrien deskribapena.	53
23. taula. Egokitzeko Planaren hasieran proposatutako ekintzen gaur egungo egoera.	54
24. taula. KEIEPe an inplikaturako eragileen mapa.	58
25. taula. Biomazaren aprobezgamendu potentziala Euskadin	68
26. taula. Euskadiko biomazaren aprobezgamendu energetikoaren helburuak, 2020ra eta 2030era begira	69
27. taula. Errenteriako baso azalera (2016)	71
28. taula. Errenteriako tokiko iturrien potentzialaren laburpena	72
29. taula. Gaur egungo energia kontsumoak, eskari termikoa, elektrikoa eta mugikortasuneko bereizita	73
30. taula. Egungo sorkuntza elektrikoa eta termikoa Errenterian, iturri berriztagarrietatik abiatuta	73
31. taula. Errenteriako tokiko iturrien potentzialaren eta kontsumo termikoaren eta elektrikoaren arteko alderaketa, ibilgailu parkea elektrifikatuko balitz	74
32. taula. Iturri desberdinetatik datorren energiaren kostu nibelatuen eta iturri konbentzionalen kostuen arteko alderaketa	74



33. taula. Airearen urteko tenperaturaren mediana egungo kliman eta RCP4.5 2030 eta 2050 agertokietan	80
34. taula. Eguneko tenperatura minimoen eta maximoen medianaren bilakaera hiruhilekoko eta urteko, gaur egun eta RCP4.5 2030 eta 2050 agertokietan	82
35. taula. Urteko egun beroen eta oso beroen eta urteko gau tropikalen eta oso beroen kopuruaren bilakaera, gaur egundik RCP4.5 2030 eta 2050 agertokietara	82
36. taula. Berokuntzako urteko egun graduen bilakaera gaur egundik RCP4.5 2030 eta 2050 agertokietara	85
37. taula. Klima arrisku sektoriala Errenterian, aztertutako hiru denbora agertokien arabera	105
38. taula. Lehentasunari eta jarduketari buruzko ondorioak, sektorearen arabera	107
39. taula. Aldagai osagarrien eragina Errenterian, auzoen arabera.	109
40. taula. Arintze-ekintzak egituratzeko eta kodetzeko taula.	115
41. taula. Egokitzapen-ekintzak egituratzea eta kodetzea	115
42. taula. Arintze-ekintzen kopurua, lerro estrategikoaren eta sektorearen arabera	116
43. taula. KEIEPeko arintze-helburuak.	117
44. taula. Egokitzapen-ekintzen kopurua, sektorearen arabera	118
45. taula. Ekintzen inpaktuaren laburpen-etaudalerako	120
46. taula. Udaleko KEIEP agertokia, 2030. Urtea.	121

Irudien aurkibidea

1. irudia. Energia erkidegoak	15
2. irudia. Ekonomia zirkularraren eta hondakinen eremuak	16
3. irudia. KEIEPa egiteko eskema	17
4. irudia. KEIEPa idaztean berraztertu eta aintzat hartu diren araudi, dokumentu, plan, programa eta proiektuekin lotutako udal planen mapa	21
5. irudia. KEIEPa idaztean berraztertu eta aintzat hartu diren araudi, dokumentu, plan, programa eta proiektuak argitaratu zireneko denbora lerroa	22
6. irudia. Azken energiaren kontsumo metatuak - Udala	26
7. irudia. Azken energia kontsumoen bilakaera, sektorearen eta erregai motaren arabera - Udala	27
8. irudia. Energia primarioaren kontsumoaren banaketa, sektorearen arabera, 2007an eta 2019an - Udala	28
9. irudia. Isurketen banaketa sektorearen arabera, 2007an, 2019an eta 2020an – Udala	29
10. irudia. Metatutako isurketak - Udala	30
11. irudia. 2007an eta 2019ko agertoki erreal eta hipotetikoetan sortutako isurketen konparazioa	31
12. irudia. Azken energiaren kontsumo metatuak - Udalerria	33
13. irudia. Kontsumoaren bilakaera sektorearen arabera - Udalerria	35
14. irudia. Energia primarioaren kontsumoaren banaketa, sektorearen arabera, 2007an eta 2019an - Udalerria	36



15. irudia. Energia berriztagarriaren ekoizpenaren bilakaera - Udalerria	37
16. irudia. Metatutako isurketak – Udalerria	38
17. irudia. Isurketen bilakaera, sektorearen arabera – Udalerria	39
18. irudia. Energia berriztagarrien ekoizpenaren ondorioz saihestutako CO ₂ -b isurketak - Udalerria	40
19. irudia. Ahalmen fotovoltaiko instalagarriaren mapa	65
20. irudia. Euskadiko baso azaleraren eta zuraren stockaren banaketa geografikoa eta bilakaera	70
21. irudia. Erradiazioaren ezaugarrien eta isurketa joeren laburpena, agertoki bakoitzaren arabera	77
22. irudia. Tenperaturak eta prezipitazioak Errenterian, hilabetez hilabete. Iturria: Meteoblue	78
23. irudia. Errenteriako zeruaren batez besteko egoera, hilabetez hilabete. Iturria: Meteoblue	79
24. irudia. Temperatura maximoen batez bestekoa Errenterian, hilabetez hilabete. Iturria: Meteoblue	79
25. irudia. Hileko temperatura medianaren bilakaera gaur egun eta RCP4.5 2030 eta 2050 agertokietan - (Ezkerreko aldean)	81
26. irudia. Hileko temperatura medianaren bilakaera diferentziala gaur egun eta RCP4.5 2030 eta 2050 agertokietan - (Eskuineko aldean)	81
27. irudia. Urteko ordukako tenperaturak, temperatura baremoen arabera	81
28. irudia. Hozkuntzako urteko egun graduen bilakaera gaur egundik RCP4.5 2030 eta 2050 agertokietara	86
29. irudia. 2030eko joera agertokia kalkulatzeko metodologia	89
30. irudia. 2016-2019 urteetako batez besteko kontsumoen banaketa, energia bektoreen arabera	90
31. irudia. 2016-2019 urteetako batez besteko kontsumoen banaketa, sektoreen arabera	91
32. irudia. 2016-2019 urteetako batez besteko energia elektrikoren eta termikoaren kontsumoa, sektorearen arabera	92
33. irudia. 2016-2019 urteetako gas naturalaren eta beste erregai batzuen (hau da, gasolioa, PGLa eta gasolina) batez besteko kontsumoa, sektorearen arabera	93
34. irudia. Errenteriako biztanleriaren bilakaera 2001etik 2020ra.	94
35. irudia. Etxebizitza sektoreko kontsumoaren joera, energia bektoreen arabera	95
36. irudia. Zerbitzu sektoreko kontsumoaren joera	97
37. irudia. Zerbitzu sektoreko kontsumoaren joera, energia bektoreen arabera	98
38. irudia. Gipuzkoako ibilgailu kopuruaren banaketa 2019an, erregai motaren arabera	98
39. irudia. Automobilien kontsumoaren joera, energia bektoreen arabera	99
40. irudia. Energia kontsumoaren joera, ibilgailu motaren arabera	100
41. irudia. Udalerriko energia kontsumoaren joera, sektorearen arabera	101
42. irudia. Udalerriko kontsumoaren joera, energia bektoreen arabera	102
43. irudia. Udalerriko CO ₂ b isurketen joera	103
44. irudia. EAEko udalerriek klima aldaketaren aurrean duten kalteberatasuna eta arriskua ebaluatzeko metodologiarako erreferentziako kontzeptu esparrua. IPCC (2014).	104
45. irudia. Pobrezia energetikoaren intzidentzia-maila auzoka, energia-gastuei aurre egiteko ahalegin ekonomikoaren adierazlerako.	110
46. irudia. Pobrezia energetikoaren intzidentzia-maila zentsu-sekzioen arabera, energia-gastuei aurre egiteko ahalegin ekonomikoaren adierazlerako.	111



47. irudia. Pobrezia energetikoaren intzidentzia-maila auzoka, «Etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko ezintasuna» adierazlearekiko. 112
48. irudia. Pobrezia energetikoaren intzidentzia-maila zentsu-sekzioen arabera, «Etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko ezintasuna» adierazlearekiko. 113
49. irudia. Udalerriko CO₂eq isurien joera-bilakaeraren konparazioa, erreferentziako agertokiaren eta KEIEPean neur daitezkeen ekintzen ezarpenaren arabera. 123
50. irudia. Udalerriko CO₂eq isurien joera-bilakaeraren konparazioa, erreferentziako agertokiaren eta KEIEParen ekintzen implementazioaren arabera. 124



1. Laburpen exekutiboa

Klima eta Energia Jasangarrirako Ekintza Planaren (KEIEP) helburu nagusia EBk 2030erako ezarritako helburuak betetzeko eta gainditzeko egin beharreko ekintzak definitzea da. Ezarritako helburu horiek honako hauek dira: 2007ko oinarri-urtearekin alderatuta, bere lurralde-eremuan CO₂eq isurketak % 55 murriztea, eta klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko ikuspegi komuna hartzea. Larrialdi klimatikoa dela eta, gero eta nabarmenagoa eta administrazio publikoaren maila guztietan aitortua, CO₂eq isurien murrizketa % 55era igotzea proposatu du EK-k 2030erako; beraz, Errenteriako udalerrriak izan ditzakeen muga errealisten barruan, ahalik eta ahalegin handiena egin beharko litzateke listoi berri hori lortzeko.

Bestalde, KEIEPak bat etorri behar du Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta Nazio Batuek bultzatutako 2030 Agendarekin. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea ere bete behar du. Azken horrek euskal erkidegoko udal guztiek energia berriztagarriak aprobetxatzeko behar adina instalazio izatea eskatzen du, beren eraikin eta ekipamenduen kontsumoaren % 32 hornitzeko, aprobetxamendu termikoko sistemak zein elektrizitatea sortzeko sistemak barne, 2030. urterako.

Planak 148 ekintza ditu, 126 arintzekoak eta 22 egokitzekoak. Horiek, gehienbat, 4 ildotan biltzen dira: eraginkortasun energetikoa, mugikortasuna, berriztagarriak arintze-ekintzetan, eta hiri-ingurunean eta azpiegituretan egokitzeko ekintzetan. Udal mailako inbertsioa 24,8 milioi euro ingurukoa da.

2. Aurrekariak

Errenteriako udalerrriak 2012an egin zuen bat Alkateen Itunarekin. 2015eko maiatzean Energia Iraunkorrerako Ekintza Plana (EIEP) onartu zuen, 2020an berotegi efektuko gasen (BEG) isurketak, gutxienez, % 20 murrizteko 2007arekin alderatuta. Aurten bertan, Errenteriako Udalak bat egin du Nazio Batuen Compact Of Mayors ekimenarekin, eta klima aldaketaren aurrean tokiko ekintza zorrotzagoa egiteko konpromisoa hartu du. Atxikipen horren ondorioz, 2019an "Errenteriako Klima Aldaketara Egokitzeko Plana" onartu zen.

2019ko otsailaren 21ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legea sartu zen indarrean. Lege horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztiek, udalek ere bai, energia jarduketan hainbat urtetarako planak egin beharko dituzte. Plan horietan, beren jarduera eremuan zer egoera dagoen jakiteko diagnostikoak egin behar dituzte, eta plana indarrean dagoen bitartean gauzatu beharreko estrategiak zehaztu. Horretaz gain, planak egiteko prozesuetan herritarrek parte hartuko dutela bermatu behar dute administrazioek.



4/2019 Legean ezarritako energia aurrezpen eta efizientziaren eta energia berriztagarrien ehunekoak betez, eta Euskadiko Energia Estrategian ezarritako helburuekin bat eginik, Errenteriako udalaren helburu nagusia 2050erako energia kontsumoa % 60 murriztea da, 2030erako % 35 murriztuta. Bestalde, 2030erako, eraikin guztietan, administrazio horren kontsumoaren % 32 hornitzeko adina energia berriztagarri aprobetxatzeko instalazio jartzea ere badu xede, aprobetxamendu termikoko eta elektrizitatea sortzeko sistemak barne.

Estatuan, "Klima aldaketaren eta energia garbiaren Espainiako estrategia (2007-2012-2020)" eta "Klima aldaketara egokitzeko plan nazionala 2006-2020" onartzea erabakigarria izan da herrialdeko energiaren eta klimaren politika publikoak lantzeko. Administrazioaren maila guztietan gerora egindako planak Estatuko plan horietan finkatutako helburu horiek betetzeko asmoz garatu dira, eta ahaleginak alderdi hauetara bideratu: ikerketa eta jakintzaren garapena, erakundeen arteko lankidetzak, politika fiskalak, lurraldearen antolamendua, erabil daitezkeen teknika onenak, eta ingurumena kudeatzeko sistemak, eta hori guztia energia eta klima aldaketa uztartuko dituen aterki komun baten pean.

Gaur egun, "Energia eta Klimaren Plan Nazional Integratua 2021-2030" garatzen ari gara, "Klima Aldaketara Egokitzeko Plan Nazionala 2021-2030" prestatzen eta energia erkidegoak garatzen, Espainiako energiari eta klimari buruzko politikaren funtsezko hiru ardatz diren aldetik. Zenbat eta gehiago hurbildu tokiko eremura, orduan eta zentzu gehiago hartzen dute energiari eta klimari buruzko politikaren elementuek, eta lurralde baten garapenerako behin betiko ekintza bihurtzen dira. Efektu hori ikus daiteke gobernantzaren, lurralde antolamenduaren, hiriko eta hiriarteko mugikortasunaren (besteak sektore lauso batzuen artean), finantzaketa ereduaren eta partaidetza sozialaren kasuan.

Testuinguru horretan, Errenteriako udala bere energiari eta klimari buruzko politikak Estatuko eta autonomia erkidegoko lege, estrategia eta planetan finkatutako premia eta jarraibideetara egokitzeko bidean dago. Egokitzapeneko prozesu hori, Udal guztien kasuan, mota horretako politikaren aurrekarien eta udal egiturako politikak txertatzeko ahalmenaren arabera da, baina baita plangintza egiteko dauden bitartekoen eta gizarte eragileen partaidetzaren arabera ere.

Azkenik, COVID-19ak eragin dituen arazoaren barruan, pandemiaren efektuak aukera handia ere izan dira, EBk Green Deal inbertsio programan markatutako susperraldi ekonomikoaren planaren bitartez, trantsizio energetikoa bizkortzeko aukera ematen baitu. Beraz, ondo zehaztutako KEIEP sendo bat izatea ekonomia suspertzeko funtsak modu egokian bideratzeko modua izan daiteke.

3. Helburuak

Klima eta Energia Plan baten helburu orokorra udalerriko klima-aldaketa arintzen eta horretara egokitzen laguntzea da, eta honako **helburu espezifiko** hauek ditu:

1. **Ekintza klimatikoari buruzko ikuspegi eta helburu estrategikoak** sortzea, bai eta udalaren barruan **bidezko trantsizio energetikoa** eta herritarrak inplikatzeko ere.



2. 4/2019 Legearen eta etorkizuneko EAeko Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legearen **arau-betebeharrak** betetzea.
3. Datozen urteetan egin beharreko **jarduerak** zorrotasunez eta ikuspegi orokorretik **formulatzea eta lehenestea**.
4. Udaleko sailen/arloen arteko **zeharkako lana** erraztea eta bultzatzea.
5. Klimaren eta trantsizio energetikoaren alde **herritarren ekintza** dinamizatzea eta bultzatzea.

1. taula. Euskadiko Klimaren eta Energiaren Tokiko Planen helburuak

HELBURUAK	HELMUGA	
Udalaren energia-kontsumoa murriztea (2030)	35%	4/2019 Legea, EAeko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa
Sorkuntza berriztagarria tokiko administrazioan, kontsumo elektriko eta termikoari dagokionez (2030)	32%	4/2019 Legea, EAeko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa
Udalerriko BEG isuriak murriztea (2030)	55%	Klima eta Energiaren aldeko Alkatetzen Ituna
Klima-aldaketaren aurrean lurraldearen erresilientzia ziurtatzea	-	Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategia 2050
Klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko ikuspegi komuna hartzea.	-	Klima eta Energiaren aldeko Alkatetzen Ituna


“Ihobeko (Ihobe, S.A., 2021) Energia eta Klimaren Tokiko Planak egiteko Gidaren” arabera, Planek baliabideen eskuragarritasuna handitzen eta kostuak murrizten lagundu ahal izango dute, 3 bideren bidez:

- Trantsizio ekologikoaren eremuan **finantzaketa-lerroetarako eta laguntzetarako sarbidea** erraztea.
- Energia-horniduraren **kostuak murrizten** laguntzea.

- Egokitzen ez aritzearen kostuak murrizten laguntzea.

Kalteberatasunak eta pobrezia energetikoak lekua dute klimari eta energiari buruzko tokiko planen barruan; izan ere, Klimaren eta Energiaren aldeko Alkatetzen Itun berriak dei egiten die udalerriei gai horri KEIEP-en esparruan heltzeko eta egoera hori arintzeko neurri egokiak hartzeko.

Hori guztia dela eta, Errenteriako Udalak KEIEP sendoa lortzea izan behar du helburu, Udaleko beste plan, programa eta proiektu batzuekin koherentea, gizartearen, teknologiaren eta diruaren aldetik egingarria eta, batez ere, inplikaturako eragileen artean adostuta. EBren eta 4/2019 Legearen helburuak betetzeaz gain, KEIEPko ekintzak kualitatiboki eta kuantitatiboki definitzen dira; beraz, bi hurbilketa uztartzea funtsezkoa da: Top down eta Bottom up. Plana hainbat neurri osatzen da, eta neurri horiek ibilbide-orri batekin egituratzen dira, inplementazioa bideragarria izan dadin; bestalde, herritarren behar eta itxaropen berriak biltzen dira planean, baita energiaren sektorearen balio katean lekua izan dezaketen lege figura berriak ere, hala nola agregatzaileak edo energia erkidegoak.



1. irudia. Energia erkidegoak

Garrantzitsua da digitalizazioaren ahalmenari, ekonomia zirkularraren kontzeptuari eta hondakin izatetik baliabide izatera bihurtzeko ideiarri etekina ateratzea eremu guztietan, hurrengo grafikoan adierazten denez:



HIRIA	AUZOA	ETXEBIZITZAK
		HORNIKUNTZA
		INDUSTRIA JARDUERA
		HIRUGARREN SEKTOREKO JADUERA
	AZPIEGITURA	
	INGURUNE NATURALA	

2. irudia. Ekonomia zirkularraren eta hondakinen eremuak

Zuzeneko erantzukizun publikoa planean txertatu behar da, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legean (otsailaren 21eko 4/2019 Legea) udalerrietarako ezarritako nahitaez bete beharreko helburuak bete ahal izateko.

Azkenik, dokumentu hau parte-hartzaileen eta interesdunen hizkuntza aukeratzeko eskubidea errespetatuz egin da eta, beraz, elebitan dago: euskaraz eta gaztelaniaz.

4. Hedadura

KEIEPak bi hedadura mota ditu: bata denborari dagokio, eta epe labur, ertain eta luzeko ekintzak garatzen dira 2020-2030 aldian; eta bestea, berriz, edukiei dagokie, Udalak hasieran zehaztutako ildo estrategikoei jarraikiz. Dokumentu honetan egindako lanak ildo estrategiko hauek ditu ardatz: Energia Efizientzia, Mugikortasuna, Energia Berriztagarriak, Hondakinak, Ura eta Ingurune Naturala, batez ere.

Zer? Deskribapena Eremua/Azpi-eremua/Taldea Zerrendatutako eremuak	Zergatik? Helburuak Adierazleak	Zertarako? Balioa Eragina Stakeholders	Non? Eragin eremua
	Nola? Salbuesteko faktoreak Pertsonala Teknologia	Noiz? Lehentasan-irizpideak Mendetasunak eta arriskuak	
	Nor? Arduraduna		
	Zenbat? Iraupena		

3. irudia. KEIEPa egiteko eskema

KEIEP hau egiteko, 3.irudiko eskemari jarraitu diogu; hasteko, planak biltzen dituen eremuak, azpi-eremuak eta ildo estrategien multzoak definitu eta deskribatu genituen. Gero, ildo estrategiko bakoitzerako planak eta neurriak zehaztu genituen, eta ildo, plan eta neurri bakoitzerako jarduketa eremuak definitu.

KEIEPak “Zergatik?” galderari erantzuten dio. Ildo estrategiko, plan eta neurri bakoitzerako helburuak zehazten ditu, baita helburuen betetze maila frogatzen duten adierazleak (prozesuarenak eta emaitzarenak) ere. Helburu horietan, gizartean eta energian lortu nahi den inpaktua ere sartzen da, eta kasu bakoitzerako stakeholder-ak (tokikoak eta kanpokoak) zehazten dira. Halaber, dokumentu honetan, ildo estrategiko, plan eta neurri bakoitzaren inpaktu lekua edo gunea ere definitzen da, dela geografikoa, dela soziala.

Planetik garatutako ekintza bakoitzerako, eremua, ildo estrategikoa, arduraduna, helburua, kostu ekonomikoa, ezartzeko metodoa eta finantzabide posibleak edo ekintza mekanismoak zehazten dira.

Era berean, ekintza bakoitza lehenesteko irizpideak ezarri ziren, ekintzaren energia eraldatzeko potentzialean eta ekintzaren mendekotasun eta arriskueta oinarrituta.



Ekintza Planak eta Neurriak zein eremutan zehaztu diren definitzeko irizpidea xehetasun premian, beste jarduera batzuen trakzio potentzialean eta eremuaren eraldatze potentzialaren arabera garrantzian oinarritzen da. Gainera, dokumentuan, banakako ekintzak definitzen dira, eta horien balioespen eta justifikazio kuantifikatua egiten da, fitxa gisa laburbilduta.

Ekintzak abiapuntu izanik, 2030erako KEIEP Agertokia finkatu da, Udalak planteatutako helburuak Planean proposatutako ekintzen bitartez betetzeko ahalmena adierazten duena. Plan honetan, KEIEPa ezartzeko prozesuan Udalak zuzeneko eta zeharkako jarduketak ditu; zuzeneko jarduketak Udalak jarduteko gaitasuna duen bere eraginpeko sektore edo arloetan ezartzen dituenak dira; eta zeharkakoak, berriz, zuzeneko ahalmenik izan gabe, Udalak sustatu ditzakeen sektoreetan ezartzen direnak.

5. Lotutako udal planen mapa

Ardatzak trantsizio energetikoa eta klima aldaketaren ondorioetara egokitzea izanik, loturen mapa bat egin dugu, bai udalaren dokumentu, plan eta programetan oinarrituta, bai Errenteriako Udalak sustatutako eta lehendik dauden helburu, ekintza plan eta proiektuen artean. Aldi berean, udalaren dokumentu, plan eta programak goragoko eskalako arau esparruekin, legeekin, estrategiekin, konpromisoekin eta ezarpen planekin alderatu dira (esate baterako, probintziakoekin, erkidegokoekin, estatukoekin edo Europakoekin).

Mapa egiteko, udal eragileekiko lankidetzat estuan aritu gara, eta espero dugu zuzeneko lankidetzat horri esker lurraldearen ikuspegi orokorra eta zeharkakoa txertatu ahal izatea klima aldaketa arintzearen eta klima aldaketara egokitzearen eremuetan, KEIEP berriaren ekintzak eta horien ezarpena lehenesteko eta definitzeko.

4.2 atalean diagrama bat (5. irudia) dago; diagrama horretan denbora lerro bat agertzen da eta, bertan, KEIEP hau idazteko aintzat hartu ditugun eta atal honetan berraztertu ditugun dokumentuak biltzen dira.

5.1 Lotura maparen edukia

Jarraian, edukia aurkeztuko dugu, ataletan egituratuta, KEIEParen definizioari dagokionez duten garrantziaren arabera:



5.1.1. Helburuak eta ikuspegia 2050erako

Gure ekonomiaren ingurumen inpaktua arintzeari eta lortu nahi den trantsizio energetikoko ereduari buruzko ikuspegia Pariseko Akordioak (2016) ezartzen du. Akordio hori mundu osokoa da eta, hortik abiatuta, 2030 Agenda (Nazio Batuak) eta garapen jasangarrirako 17 helburuak definitzen dira.

Horren ondorioz, Europar Batasunak 'Klimari eta energiari buruzko esparrua 2030erako - EB (2014)' dokumentuan planteatutako helburuak berraztertu behar izan ziren, eta **2030. urtean (1990. urtearekin alderatuta) BGen isurketak % 55 murriztea lortzeko helburu handia** proposatu zen. Egoera berri horretan, Europako araudi eta gidalerroen multzo bat zehaztu zen, eta horiek guztiak honako hauen barruan sartzen dira: *Energia garbia europar guztientzat* estrategia, *Europako Itun Berdea*, eta *Ekonomia zirkularerako ekintza plana*. Estatuan, ekintza premia horren ondorioz, 2020. urtearen amaieran Espainiako ekonomiaren *La estrategia de descarbonización a largo plazo 2050* argitaratu zen, zero isurketen ekonomia bateranzko trantsizioaren ekintza ildo nagusiak eta funtsezko sektoreak balioan jartze aldera.

Autonomia Erkidegoan, 2030erako eta 2050erako helburuak honako hauen arabera zehaztu ziren: *Euskadiko Energia Estrategia (2016)*, non *EAEko Jasangarritasunari buruzko 04/2019 Legea (2019)* idazteko eta onartzeko esparrua ezartzen den, *Euskal Adierazpena (2016)* eta *Klima aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategia (2015)*. Azkenik, probintziari dagokionez, *Gipuzkoako Klima Aldaketaren Aurkako Borroka Estrategia 2050 (2018)* zehaztu zen, aipatutako azken bi dokumentuetan egindako lanaren emaitza.

Tokiko mailan, Alkateen Ituna 2030 dokumentuko helburuek markatzen dute agenda. Horrela, bada, **KEIEP berrian, isurketak % 55 murrizteko ahalegina egin beharko da, gertuko denbora muga batean, 2030ean, baina, aldi berean, Europar Batasunak ezarritako ikuspegiari ere erreparatuta, hau da, isurketak % 55 murriztea aldi berean (epe laburrerako), eta 2050erako % 80 (epe ertainerako).**

Lege esparrua

Energia efizientziaren eta trantsizio energetikoaren arloan aplikatu beharreko lege esparrua Estatuan, batik bat, definitzen da, hiri ingurune guztia eraginpean hartzen duten arauen bitartez, hiri ingurune hori udalerraren barrukoa nahiz kanpokoak izan, edo obra berrikoa nahiz birgaitua. Lege esparru hori bat dator *Eraikingintzaren Kode Teknikoarekin* eta 2019an eguneratutako Energia aurreztearen atalarekin, baita *Instalazio Termikoen Erregelamenduetan* ere.

Horiekin batera, bi Errege Dekretu ere nabarmendu behar dira: *244/2019 Errege Dekretua (2019)* eta 2021eko eguneratzea, energia elektrikoaren autokontsumoaren baldintza administratibo, tekniko eta ekonomikoak arautzen dituena; eta *23/2020 Errege Dekretua (2020)* energia berriztagarriak indartzeko eta energia sektorea ekonomikoki suspertzeko neurriak onartzen dituena eta energia berriztagarrien erkidegoen egitekoa arautzen duena.

Autonomia Erkidegoaren mailan, EAEko Jasangarritasunari buruzko 04/2019 Legeak (2019) energia kontsumoari buruzko eta energiaren aurrezpen eta efizientzia potentzialei buruzko diagnostiko bat egitea du helburu.



Herriko diagnostikoa egiteko datuak

Hainbat dokumentu eta plani esker, Errenteriako udalerrriaren egungo testuingurua zehatz uler daiteke, eta horiek guztiak funtsezkoak dira KEIEPko arintzeko eta egokitzeko ekintzak garatu eta definitzeko.

Eskualdeari dagokionez, honako hauek nabarmenduko ditugu:

- Urtero argitaratzen den *Oarsoaldeako Energia Plana*, energia aurreztearekin eta iturri berriztagarrien bidez energia sortzearekin lotutako ekintzen ezarpen egoera zein den aztertzen duena.
- *Oarsoaldeako etxebizitzaren birgaitze energetikoa burutzeko plan orokorra (2016)*, Errenteriako eraikin parkearen egoera zein den eta horren birgaitze energetikoa burutzeko ekintza ildo nagusiak deskribatzen dituena.
- *Oarsoaldeako industriaren behar energetikoen azterketa (2016)*, herriko kontsumoak sektorearen arabera nola banatzen diren azaltzen duena, herriko industria jarduerak zeintzuk diren jakin eta industriaren sektorerako energiaren arloko xedeak (aurrezte eta sortzea) ulertze aldera. Informazio hori osagarritzat jotzen da; izan ere, sektore hori ez baita aplikatzen KEIEPak idazterakoan, baina garrantzitsutzat jotzen da udalerrriaren ikuspegi orokorra izateko kontsumo eremu guztietan.


Bestalde, udalerrian honako hauek nabarmentzen dira:

- Errenteriako *EIEPa* 2015. urtean onetsi zen, eta esku hartzeko ildo estrategikoak eta sektoreak ezartzeaz gain, ekintza bakoitzaren egoera aldizka eguneratzen da. Aldi berean, *EIEPa* funtsezko abiapuntua da hura idatzi aurretik gauzatutako udal plan, dokumentu eta programak ulertzeko (esate baterako, *Errenteriako Iraunkortasunerako Ekintza Plana*, *Errenteriako Udal Ingurumen Estrategia*, *Errenteriako Plan Estrategikoa 2025*).
- *Errenteriako Klima-aldaketara egokitzeko Plana (2018)*, non *Klima-aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Estrategia (2015)* edo *Espainiako Kostaldea Klima Aldaketara Egokitzeko Estrategia* dokumentuan garatutako lan ildoak aintzat hartzen diren, funtsezkoa da herriko klimaren etorkizuneko proiektuak ulertzeko eta planteatutako egokitze ekintzen inpaktua baliozkotzeko.
- *Pobrezia energetikoaren intzidentzia Errenterian (2020)* azterketaren bitartez, lehen aipatu dugun *Oarsoaldeako etxebizitzaren birgaitze energetikoa burutzeko plan orokorrean* egindako lana osatzen da, eta garrantzitsua da bizilekuen sektoreak dituen kalteberatasunen diagnostikoa egiteko garaian.

KEIEPa idaztean aplikatu beharreko ekintzak


Udalerriko plan eta azterlanetan (aurreko atalean aipatu ditugunak) proposatutako ekintzak, horien egoera eta dagozkien inpaktuak ulertzea garrantzitsua izango da egungo KEIEPa idaztean proposatu diren arintzeko eta egokitzeko ekintza berriak definitzeko.

5.2 Lotutako udal planen mapa



4. irudia. KEIEPa idaztean berraztertu eta aintzat hartu diren araudi, dokumentu, plan, programa eta proiektuekin lotutako udal planen mapa

5.3 Denbora lerroa



5. irudia. KEIEPa idaztean berraztertu eta aintzat hartu diren araudi, dokumentu, plan, programa eta proiektuak argitaratu zireneko denbora lerroa



6. Energia kontsumoen eta isurketen inbentarioa

6.1 Kokatzea

Energia kontsumoen eta isurketen inbentarioak funtsezko informazioa sortuko du, alde batetik, 2007tik 2020ra bitarte, ezarritako kontsumoak eta isurketak murrizteko helburuak bete ote diren egiaztatzeko. Beste alde batetik, Errenteriako udalerraren egungo egoeraren esparrua ezarri ahal izango da eta, hartara, kontsumoen eta isurketen murrizketa erritmoak zera adierazten duen ebaluatu ahal izango da, ea txertatutako neurriekin 2030erako ezarritako helburuak beteko ote diren. Halaber, emaitzen arabera, arazo gehien dituzten sektoreak zeintzuk diren identifikatu ahal izango da, 2030erako adostutako helburuak betetzeko aurreikusitako jarduketan sorta berriz zehaztu eta, behar izanez gero, berriz bideratzeko.

Covenant of Mayors edo Alkateen Itunean xedatu zenez, kontsumoen eta isurketen inbentarioak bi mailatan egin ziren:

- Udalean, eta
- udalerrian

Udaleko kontsumo eta isurketen inbentarioan Udalak kudeatzen dituen jarduera eta ekipamenduek zuzenean eragiten dituzten kontsumoak soilik hartzen dira kontuan. Aldiz, udalerriko inbentarioan herriko partikular eta erakunde publiko nahiz pribatuen jarduera guztiak biltzen dira.

Txosten honetan, emaitzak energia kontsumitzen duten sektoreen arabera aurkezten dira, energia elektrikoaren kontsumoa eta isurketa, sektore bakoitzerako erregaien kontsumoa eta energia berriztagarrien ekarpen orokorra zehaztuz.

Energia kontsumoaren inbentarioen emaitzak azken energiaren MWh-etan ematen dira gehienbat, KEIEPan ezarritako kontsumoa murrizteko helburuak azken energiari buruzkoak direnez. Hala ere, erreferentziako urteetan kontsumitutako energia primarioaren gutzitza ere aurkezten dira, MWh-etan, baita urte horien artean izandako energia primarioaren portzentajezko murrizketa ere. Isurketen inbentarioen emaitzak CO₂-b tonatan adierazita daude.

6.2 Udal mailako inbentarioa

6.2.1. Hipotesiak

Udaleko kontsumoen eta isurketen inbentarioa 2007. (erreferentziako urtea), 2019. eta 2020. urteetarako kalkulatu zen, Udalsarea 2030ek garatutako metodologiari jarraikiz.

Hainbat urtetako kontsumoen eta isurketen inbentarioa kalkulatzeko aplikatutako metodologia homogeenoa izate aldera, Aiguasolek 2007ko inbentarioa berrikusi zuen; urte horretako emaitzak KEIEP zaharrean biltzen dira. Dokumentu honetan 2007ko inbentarioaren emaitza berrikusiak aurkezten dira, Udalak emandako datu eta dokumentuetatik atera ostean.

2007. urteko berregindako inbentarioa beste urteetako inbentarioak kalkulatzeko erabiliko metodologia berean oinarritzen da, eta, hasierako inbentarioari dagokionez, honako hauen estimazioak ditu:

- 2007rako elektrizitatearen eta gasaren HPKB edo Hornidura Puntuaren Kode Bateratuaren zerrendan identifikatuta ez zeuden Udalaren eraikinen kontsumoak, urte horretan bazeudela jakina baita,
- 2007ko inbentarioaren lehen bertsioan kontuan hartu ez ziren Udaleko eraikinetako gasolio kontsumoak, eta
- Hiri hondakin solidoak biltzeko eta kaleak garbitzeko kontratista baten ibilgailu flotaren erregai kontsumoak, inbentarioaren hasierako bertsioan kontuan hartu ez zirenak.

2020ko datuak dira azkenak. Hala eta guztiz ere, 2020ko konfinamenduaren eta pandemiarekin lotutako beste murrizketen ondorioz energia kontsumoen ezohiko beherakada gertatu zen, Udalaren ekipamenduen erabilera mugatu zuten aldetik. Ordura arte ezohikoak ziren jardunbideak, hala nola telelana, herritarren eta, bereziki, udaleko ekipamenduetako langileen egunerokotasuneko arau bihurtuko ote diren esateko goizegi da oraindik. Nolanahi ere, 2020. urtea ezin da adierazgarritzat hartu, berezitasunak berezitasun, eta horren ondorioz, ezin da erreferentziatzat hartu egin nahi dugun azterketarako. Horrela, bada, 2020ko emaitzak kontsultak egiteko utzi badira ere, ez dira konparazioak egiteko erabili behar. Emaitzak aztertzean 2019ko datuei erreparatuko zaie.

2019. eta 2020. urteetako kontsumoari buruzko datu zehatzak Inergy enpresak bildu eta eman zituen; Inergy enpresak merkaturatu eta kudeatzen du Errenteriako Udalak erabiltzen duen energia kudeatzeko softwarea.

SI Eren kontsumo datuek informazio zehatza ematen dute, zehazki, Udalaren ekipamendu bakoitzeko elektrizitatearen, gasaren, gasolioaren, biomasaren eta beroa berreskuratzeko sistemetakoa energia termikoaren kontsumoei buruz; ekipamenduan bertan instalatutako energia berriztagarria ekoizteko sistemetatik (bereziki, fotovoltaikoa) kontsumitutako energia elektrikoari buruz; eta sistema horiek sortutako energiaren soberakinari buruz. Ekipamenduetan kontsumitutako




energiatz gain, SIEren inbentarioan udalerriko argiteria publikoko koadroetako energia kontsumoari buruzko datuak eta udalari zuzenean zerbitzuak eskaintzen dizkioten ibilgailu floten erregai kontsumoak ere jasotzen dira.

Iberdrolak hornitzen du Udala energia elektrikoaz, eta elektrizitate % 100 berdearen zerbitzua dauka kontratatuta. Horrela, bada, ekipamenduetan eta argiteria publikoan kontsumitutako elektrizitate guztia energia iturri berriztagarriek ekoizten dute eta, beraz, ez dute ekoizpenari lotutako isurketarik. Hala ere, hainbat enpresak elektrizitate kontratu propioak dituzte (energia elektrikoaren beste hornitzaile batzuekin) eta udal zerbitzuak eskaintzen dituzte. Horietatik, arreta berezia eman zaie Fanderiako igerilekuei, energia kontsumo esanguratsuena dutelako eta, beraz, elektrizitate fakturak aztertu dira, energia isurketa zehatz bihurtzen duen faktorea aplikatu ahal izateko. Azterketaren ondorioetarako, Udalak 2019an eta 2020an sortutako isurketen emaitza hipotetikoak aurkeztu dira, elektrizitate "berdea" kontratatu izan ez balitz bezala, Estatuko mix elektrikoaren isurketen bihurteta faktorea kontuan hartuta. Kalkulu horri esker, hornitzaile jakin batzuk eta energia ekoizpen mota jakin batzuk aukeratzeak –beste batzuen kaltetan– isurketen guztizkoaren mailan eragiten dituen ondorioak ebaluatu daitezke.

6.2.2. Kontsumoen inbentarioa

2007., 2019. eta 2020. urteetako inbentarioetatik ateratako azken energiaren kontsumo metatuak 6.irudiko grafikoan aurkezten dira. Erregaiak sortutako azken energiaren baturak esanahi fisikorik ez duen arren, KEIEPak azken energiaren portzentajezko murrizketaren helburuak ezartzen ditu. Beraz, kontsumitutako azken energiaren guztizko balioak sektorearen eta erregai motaren arabera banakatutako balioekin batera aurkezten dira, baita erreferentziako urtearen eta 2019. urtearen artean gertatu zen portzentajezko murrizketa ere, 2.taulan.




6. irudia. Azken energiaren kontsumo metatuak - Udala

2. taula. Azken energiaren kontsumoak eta portzentajezko murrizketa 2007tik 2019ra eta 2020 - Udala

Sektoreak	Erregaiak	AE 2007 [MWh]	AE 2019 [MWh]	Murrizketa eta 2019-2007	AE 2020 [MWh]	Murrizketa eta 2020-2007
Udal flota	Gasolia	2.703	2.435	+10%	2.240	+17%
	Elektrizitatea	4.707	3.070	+35%	2.741	+42%
	Gasa	6.594	4.678	+29%	3.923	+41%
Eraikinak	Gasolia	205	20	+90%	23	+89%
	Autokontsumoa	0	48		88	
	Bero berreskuratzea	0	88		87	
Argiteria publikoa	Elektrizitatea	2.519	2.268	+10%	2.155	+14%
Guztira		16.727	12.606	+25%	11.254	+33%

7.irudiari erreparatuta, energia kontsumoek sektorearen arabera izan duten bilakaera errazago aztertu daiteke, azken energiaren kontsumoak sektorearen eta erregai motaren arabera banakatuta aurkezten baititu aztertutako urte bakoitzerako.



7. irudia. Azken energia kontsumoen bilakaera, sektorearen eta erregai motaren arabera - Udala


Eraikinetako elektrizitate kontsumoa nabarmen murriztu dela ikusten da. Gas kontsumoaren murrizketa, eraikinetan ere bai, ez da hain nabarmena termino erlatiboetan; dena den, kontsumo kategoria horren murrizketa absolutua nahiko nabarmena da. Argiteria publikoak eragindako elektrizitate kontsumoan eta udal flotaren energia kontsumoan 2007. urtetik 2019. urtera bitarte izan diren beherakada txikiak nabarmentzen dira.

3.taulan, 2007. urtetik 2019. urtera bitarteko energia primarioaren guztizko balioak eta kontsumoaren murrizketa ikus daitezke. Azken energiaren kontsumoan izandako aldakuntzen ondorioz, energiaren (primarioa) benetako kontsumoa % 30 murriztu da, guztira.

3. taula. Energia primarioaren guztizko kontsumoa - Udala

EP kontsumoa	EP 2007 [MWh]	EP 2019 [MWh]	Murrizketa
Guztira	28 711.88	20 064.37	+% 30

Energia primario bihurtuz gero, hainbat sektoretako kontsumoak alderatu ere egin daitezke. 8.irudian ikus daitezkeenez, Eraikinen sektorea da Udalaren energia kontsumoaren % 50 baino gehiagoren erantzulea.



8. irudia. Energia primarioaren kontsumoaren banaketa, sektorearen arabera, 2007an eta 2019an - Udala

Halaber, 4.taulan, autoekoiztiko energiaren edo eraikinetako beroa berreskuratzeko sistemetatik eskuratutako energiaren kontsumoak ere aurkezten dira. Datuak eraikinen kontsumoei dagozkie eta 2019koak dira, ez baitago autokontsumoko edo beroa berreskuratzeko sistemen erregistrorik 2007an.

4. taula. Autokontsumotik eta beroa berreskuratzeko sistemetatik kontsumitutako azken energia

Kontsumo mota	AE kontsumoa 2019 [MWh]
Beroa berreskuratzea	88
Autokontsumoa (energia termikoa)	18
Autokontsumoa (elektrizitatea)	29

Azkenik, 5.taulan, Udalak 2007an eta 2019an sortutako energia berriztagarriaren guztizko ekoizpena agertzen da, energia motaren arabera.



5. taula. Energia berriztagarrien ekoizpena - Udala

Energia mota	BER 2007 [MWh]	BER 2019 [MWh]
Termikoa	0	18
Elektrikoa	508	77

Elektrizitatearen ekoizpena nabarmen murriztu da, 2007an Udalaren energia elektrikoaren ekoizpenaren % 50 mini zentral hidroelektriko batean egiten zelako eta zentral hori dagoeneko ez dagoelako martxan; zentralaren ekoizpena Udalaren eta EEEren artean banatzen zen.


6.2.3. Isurketen inbentarioa

9. irudian, argi eta garbi ikusten da urte horietan isurketak nola banatzen ziren sektorearen arabera. Nahiko agerikoa da eraikinen sektoreak eragiten dituela Udalaren isurketa gehien.



9. irudia. Isurketen banaketa sektorearen arabera, 2007an, 2019an eta 2020an – Udala

10.irudian, emaitzak sektoreka banakatuta ikus daitezke: udal flota, eraikinak eta argiteria publikoa. Dagozkien balioak eta 2007tik 2019ra bitarteko portzentajezko murrizketak 6.taulan ikus daitezke.



10. irudia. Metatutako isurketak - Udala

6. taula. Berotegi efektuko gasen isurketak eta portzentajezko murrizketa 2007tik 2019ra eta 2020ra bitarte - Udala

Sektoreak	2007 [ton CO ₂ -b]	2019 [ton CO ₂ -b]	Murrizketa 2007-2019	2020 [ton CO ₂ -b]	Murrizketa 2007-2020
Udal flota	759	614	+19%	556	+27%
Eraikinak	3.267	1.024	+69%	873	+73%
Argiteria publikoa	1.007	0	+100%	0	+100%
Guztira	5.034	1.638	+67%	1.429	+72%


CO₂-b isurketen mailak nabarmen jaitsi dira 2007ko erreferentzia urtetik 2019. urtera bitarte, batez ere, Eraikinen eta Argiteria publikoaren sektoreetan. Isurketen murrizketa handi hori energia elektrikoaren hornitzailea aldatu izanak eragin du, batez ere. 2019an, argiteria publiko guztia eta eraikinen zati handi bat energia iturri berriztagarriekin sortutako elektrizitatez hornitzen dira; beraz, horien ekoizpenak eta kontsumoak ez dute berotegi efektuko gasen isurketarik eragiten.

Iturri berriztagarrietatik ekoizitako elektrizitatea hautatzeak eragiten duen inpaktua hobeto ulertzeko, 2019ko agertoki hipotetiko baterako emaitzak sortu ditugu; egoera horretan,

kontsumitutako elektrizitateak estatuko mix elektrikoaren CO₂ isurketa faktore bera duela jotzen da. 7. taulan, agertoki hipotetiko horretan berotegi efektuko gasen isurketen balio absolutuak biltzen dira, baita, alde batetik, isurketa horiek 2007an egindako isurketekin alderatuta dakarten murrizketaren eta, bestetik, 2019ko agertoki errearen ondoriozko isurketen murrizketaren arteko kontrastea ere. 11. irudiaren bitartez, emaitza horiek aztertzeko euskarri bisuala eskaintzen da, 3 agertokietako emisio absolutuak grafikoki aurkezten baititu, sektoreka.

7. taula. Elektrizitate hornitzaileek sortutako CO₂-b isurketen konparazioa

Sektoreak	2007. urteko isurketak: Estatuko mix elektrikoa [CO ₂ -b]	2019. urteko isurketak: Energia berdearen erosketa [CO ₂ -b]	2019. urteko isurketak: Estatuko mix elektrikoa [CO ₂ -b]	2007 – 2019 murrizketa: energia berdea	2007 – 2019 murrizketa: Estatuko mix elektrikoa
Udal flota	759	614	614	19%	+19%
Eraikinak	3.267	1.023	1.736	69%	+47%
Argiteria publikoa	1.007	0	589.66	100%	+41%
Guztira	5.034	1.638	2 939.64	67%	+42%



11. irudia. 2007an eta 2019ko agertoki erreal eta hipotetikoetan sortutako isurketen konparazioa



Energia kontsumoa murrizteko neurriak aplikatzearekin batera, erabat "garbia" den energiaz hornitzen duten hornitzaileak kontratatu izanak Alkateen Ituna betetzeko bide onean jartzen du Udala.

6.3 Udalerri mailako inbentarioa

6.3.1. Hipotesiak

Udalerriko kontsumoen eta isurketen inbentarioak lhobek emandako datu estatistikoetan oinarrituta egin ziren, Udalsarea 2030ek garatutako metodologiari jarraikiz.

2014. urtearen aurreko urteetako kontsumoak eta emisioak egokitu egin ziren, garraioaren sektoreko kontsumoak kontabilizatzeko metodologian izandako aldaketa jaso zezaten. Metodologia zaharrear, Gipuzkoako udalerri bakoitzari erregai kontsumo bat esleitzen zaio; hain zuzen ere, probintziako gasolina zerbitzugune guztietan kontsumitutako erregaiaren guztizkoari dagokiona, udalerri bakoitzeko ibilgailu parkearen arabera proportzionalki banatuta. Egungo metodologian (lhobe), erregai kontsumoa zenbatzeko faktore berei erreparatzen zaie, baina erregaia udalerraren arabera banatu aurretik, gasolina zerbitzugunetan erositako erregaiaren zati bat nazioarteko trafikoari egozten dio.

Grafikoki, 2007tik 2019ra bitarteko urte guztietarako emaitzak aurkeztuko dira, 2012. eta 2013. urteetakoak izan ezik; izan ere, bi urte horietan, beharrezko informazioa ez baitago eguneratuta. Bestalde, emaitzen taulak datuez ez gainkargatzearen, taula horietan 2007 eta 2019 erreferentzia urteei dagozkien datu erlatiboak baino ez dira sartu. Azterlana egin zen egunean, 2020ko datuak oraindik ez zeuden eskuragarri. Gainera, udaleko azterketan gertatzen denaren antzera, 2020. urtea ez da adierazgarritzat jotzen, pandemiarekin lotutako neurriek eragina izan baitzuten energia kontsumoko ohituretan.


Energia kontsumoaren inbentarioan honako sektore hauek hartzen dira kontuan: Garraioa, Bizitegia, Zerbitzuak. Kontsumo horien ondoriozko isurketez gain, berotegi efektuko gasen isurketen inbentarioan Nekazaritza, Abeltzaintza eta Hondakin sektoreek eragindako eta harrapatutako isurketak ere biltzen dira. Industriaren sektoreko isurketak ez dira azterketa honetan sartzen.

6.3.2. Kontsumoen inbentarioa

Beste behin ere, gogoan izan behar da erregaiak sortutako azken energiaren baturak ez duela esanahi fisikorik eta, hala ere, kontsumitutako azken energiaren guztizko balioak aurkezten direla, baita 2007tik 2019ra bitarte izandako portzentajezko murrizketa ere, KEIEPan markatutako helburuak guztizko azken energiaren portzentajezko murrizketari baitagozkio.

Beraz, 12.irudian, informazioa badagoen urte bakoitzerako metatutako azken energiaren kontsumoak ikus daitezke, eta 8. taulan, aldiz, azken energiaren kontsumoaren balio absolutuak

2007rako eta 2019rako, eta urte horien artean kontsumoak izan duen portzentajezko murrizketa. "Murrizketa" zutabeen balio negatiboa agertzen bada, kontsumoak gora egin duela esan nahi du.



12. irudia. Azken energiaren kontsumo metatuak - Udalerria

8. taula. Azken energia-kontsumoak – Udalerria

Sectores	Garraioa / Bizitegietak Transporte (M Ihobe)	Bizitegietak o elektzitateal	Zerbitzuetak o elektzitateal	Bizitegietak o erregaiak	Zerbitzuetak o erregaiak	Total
2007	353.763	52.215	38.552	59.737	20.113	524.382
2008	340.870	54.288	38.920	58.927	20.811	513.817
2009	330.579	55.335	38.780	50.476	24.125	499.295
Azterlanean hainbat teknologia termiko hartu ziren kontuan (eraikinen eta barrutien eskalan), baita elektrikoak ere, eta artearen egoerari buruzko atalean zehaztu ziren. Jarraian, Errenteriako klima eta ingurunea aztertu ziren, dauden teknologien potentzialaren ikuspegi orokor bat lortzeko. Ondoren, zer baliabide berriztagarri dauden zehaztu zen, baita zer hondakin energia dauden ere. Datu horiekin, energia sortzeko potentzialaren emaitzak lortu ziren, eta gaur egungo energia sorkuntzarekin alderatu. Orduan, gaur egungo eskaria eta auto elektrikoa hedatuz gero etorkizunean izango den eskaria ere ezagututa, udalerriko autokontsumoaren ehunekoa zehaztu zen. Azkenik, gomendio zerrenda bat proposatu zen tokiko baliabideen instalazioak lehenesteko.

Hurrengo ataletan, Errenteriako baliabide berriztagarriei eta hondakin energiari buruzko azterketaren laburpen bat da. Era berean, udalerriko egungo kontsumoa eta baliabide guztiak ezarrita estaliko litzatekeen ehunekoa ere adierazi dira; horrela, pobrezia energetikoaren egungo egoera zehaztuz

10.1 Baliabide berriztagarriak eta hondakin baliabideak

10.1.1. Eguzki energia fotovoltaikoa eta termikoa

Lehenik eta behin, Errenteriako eguzki erradiazioaren ebaluazioa egin zen, 0, 10 eta 25 graduko inklinazioak kontuan hartuta. Teilatuen angelu optimoa 36° den arren, hegoaldera begira, eraginkorragoa da estalkien inklinazioa aprobetxatzea eguzki energia biltzeko espazioa maximizatzen.

Hurrengo urratsean, udalerriko estalki guztiak identifikatu eta inklinazioaren arabera banatu ziren. Dauden estalki gehienak 30° eta 0° artekoak dira, hegoaldera begira. Orduan, hipotesi hauek egin ziren:

100 m² baino gutxiagoko estalkiak baztertzea, instalazio fotovoltaikorako leku gutxi egongo litzatekeelako.

0.203 kWp/m² dentsitateko estalkien % 100 kontuan hartzea.


25°, 10° eta 0°-ko inklinazioak dituzten eraikinek angelu horiek izango dituztela onartzea.

Panelak estalkiaren plano berean jarriko lirateke.

Itzalak ez dira kontuan hartu.

25°-ko inklinazioko estalkia duten eraikinak % 40 estaliko dira, eta 10°-koak % 70.

Estalkian energia fotovoltaikoa sortzeko potentzialaren emaitza 66.28 GWh/urte izan da.



19. irudia. Ahalmen fotovoltaiko instalagarriaren mapa

Estalkiez gain, bide azpiegiturretan integratutako instalazioak ere planteatu dira. Kalkuluen arabera, instalazio horietan, energia sortzeko potentziala estalkien % 5 inguru da, hau da, 3.84 GWh/urte.

Hurrengo urratsa, estalkietan eguzki energia termikoaren potentziala aztertzea izan zen, eta hipotesiak hauek izan ziren (fotovoltaikoaren desberdinak):

Etxeko ur berorako (EUB) termikoa soilik erabiltzea, modu konstantean urte osoan.

EUBaren estaldura eskariaren % 60 izango litzateke.

Bizitegi edo zerbitzu erabilerako eraikinetan bakarrik jarriko litzateke, estalkiak 25° dituenean.

Soilik 30 eta 0 gradu arteko orientazioa duten estalkietan.

Sorkuntza ratioa 530 kWh/m² da.

Estalkien inklinazioa 25° dela jotzen da.



Estalkien % 40 estaliko da.

Plakak estalkiaren plano berean jarriko lirateke.

Sorkuntza potentziala 108.23 GWh/urte da; EUBaren eskaria kalkulatz gero, 9.9 GWh/urte ateratzen denez, aprobetxamendu hori ez litzateke errentagarria.

10.1.2. Geotermia

Eskari termikoa duen azaleraren ebaluazioa egin zen (1.421.437 m²), eta, azalera horretan, energia termikoa sortzeko potentzialaren azterketa egin da, hipotesi hauei jarraituz:

- Errenteriako lurzoruan, ahalmena 40 W/m da.
- Putzu/zunda geotermikoen batez besteko luzera 100 m da.
- Putzuak ustiatzeko erreserbatutako azalera 64 m² da.
- Eskaria, erabateko potentziako 1.000 operazio orduren baliokidea da.

Lortutako emaitza 88.84 GWh/urte da, baina energia elektrikoaren 20.67 GWh/urte beharko lirateke aprobetxatu ahal izateko. Geotermiaren ustiapenak aldaketak eragin ditzake lurzoruan, eta, horregatik, azterketa zehatzak egin beharko lirateke; gainera, beharrezkoa denean, “birkarga” termikoa egin beharko litzateke bero soberakinak aprobetxatuz (eguzki energia termikotik datozenak edo industriako hondar beroarenak).

10.1.3. Bioenergia

EEEk (EVE, s.f.) garatutako Biomazaren Aprobetxamendu Energetikorako Planak (2017-2020) zehazten duenez, biomasa da Euskadiko energia iturri berriztagarri nagusia. Baso biomasa (batez ere kogenerazio moduan papergintzaren sektorean) kontsumo berriztagarriaren % 54 da, eta hiri hondakin solidoak eta biogasa, biak batera, % 12. Industria sektorean, biomazaren kontsumo osoaren bi heren kontzentratzen dira, baina beste sektore batzuetan erabilera gero eta handiagoa da.

Euskadin, energetikoki aprobetxa daitezkeen biomasa mota desberdinak daude, baina batzuek bakarrik dute garatzeko potentzial handia, Jaurilaritzak berriki EEEn eta Haziren bidez egindako azterlan baten arabera. Horrela, industriako baliabideak, hondakin uren araztegietatik datozen lohiak eta abeltzaintzako hondakinak aprobetxatzeko potentzial erreala txikia da; azkeneko kasu horretan, hondakinen ezaugarri fisikoek eragindako zailtasunengatik eta ustiategien eta baliabideen sakabanaketa direla eta. Hala ere, digestio anaerobiotik datorren biogasa erabil daiteke, noizean behin bada ere. Aitzitik, nabarmentzekoa da **basoko azpi produktuak aprobetxatzeko potentziala handia** dela, eta **nekazaritzako azpi produktuak eta hiri hondakin solidoak aprobetxatzeko potentziala ertaina** dela. Zehazki, beste energia batzuekin alderatuta, biomasak erregai gisa prezio lehiakorrek ditu energia aprobetxamendu jakin batzuetan; batez ere basogintzako eta nekazaritzako biomasak.

25. taula. Biomasaren aprobetxamendu potentziala Euskadin

SEKTOREA	KONTUAN HARTZEKOAK	JARDUKETA POTENTZIALA
Nekazaritza	- Ustiategiaren eta baliabideen sakabanaketa	ERTAINA
	- Lastoa eta uztondoa, 180.000 t/urte (abeltzaintzan, lurrari botatzeko eta abarretarako erabiltzen dira)	
	- Mahastien inausketa, 30.000 t/urte (berariazko erabilerarik ez). Labore energetikoak	
	- Zerealak (bioerregaiak): Europako araudiak ezarritakoaren arabera eta jada aztertutako proiektuen sustapenak	
Basogintza	- 396.700 Ha (Euskadiren azaleraren % 55)	HANDIA
	- Azkeneko 40 urteetan: zuhaitz azalera (+% 12) eta izakin zurgaiak (% 100)	
	- Labore energetikoak	
Abeltzaintza	- Zurezkoak: baso baliabideen aprobetxamenduaren osagarri den jarduketa bide berria (orain arte erabili izan ez dena)	TXIKIA
	- Ustiategiaren eta baliabideen sakabanaketa	
	- Baliabidearen ezaugarri fisikoak (potentzial txikia)	
	- Aztertutako alternatibak eta proiektuak	
Industria	- Papergintza sektoreari, zuraren eraldaketari, elikadurari eta abarri lotuta.	TXIKIA
	- Jarduera sektorearen arabera da baliabidearen aprobetxamendu maila	
	- Oro har, baliabidea energetikoki aprobetxatzen da gehienbat	
Araztegiko lohiak	- Baliabidea modu sakabanatuan sortzen da, araztegi bakoitzean	TXIKIA
	- Interes energetikoa kantitateak handiak direnean (instalazio 1 Bizkaian eta beste 1 Gipuzkoan)	
Hiri hondakin solidoak	- Zabortegeak eta haietako biogas plantak pixkanaka ixten ari dira (baliabide maila baxua)	ERTAINA
	- Zabalgarbi Bizkaian	
	- Zubieta Gipuzkoan	

Elektrizitate ekoizpenerako aprobetxatzea zaila izan arren, batez ere arau esparrua ez delako oso erakargarria, ekoizpen termikorako erabil daiteke, arlo horretan ez baitago erregulazio espliziturik. Gaur egun, aukera onena bizitegi eta zerbitzu erabilerako eraikinetan beroa sortzeko erabiltzea da, berokuntzarako eta EUBrako.

Biomasa, duen potentzialagatik, Euskadin energia berriztagarriak garatzeko funtsezko zutabeetako bat da, 2030erako Euskadiko Energia Estrategian jasotako helburuetan islatzen den bezala.

26. taula. Euskadiko biomasaren aprobetxamendu energetikoaren helburuak, 2020ra eta 2030era begira

		2015	2020	2030
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK				
Aprobetxamendua	ktep	454	539	966
Azken kontsumoarekiko ehunekoa	%	13,2	14,0	21,0
BIOMASA				
Aprobetxamendua	ktep	311	451	696
Berriztagarrien produkzioaren ehunekoa	%	68,5	83,7	72,0
Instalaturako elektrikoa	ahalmen MW	71	69	111

Iturria: Euskadiko Energia Estrategia 2030

Erreterian, Euskadin aurreikusitako hazkundearen antzekoa espero da.


Baliabideen egoera Euskadin

Basoko azpiproduktuak (mendietatik datorren hondar biomasa)


Euskadik 494.500 hektareako baso azalera du (lurraldearen azalaren % 68), eta, horietatik, 396.700 hektarea zuhaitz azalera dira (azalaren % 55), duela 40 urte baino % 12 gehiago. Horren ondorioz, 62,6 milioi m³-tik gorako egur stocka dago (duela 40 urte halako bi), eta urtean 3,8 milioi m³-ko hazkundera zenbatetsi da.

Gure lurraldean, zuhaitz espezie ugarienak intsinis pinua, pago arrunta (*fagus silvática*) eta baso misto atlantikoa dira.

Baso azalera



Egur stocka



		1972	2011
	Gutzizko zuhaitz azalera (ha)	355.000	397.000
	Gutzizko izakin zurqaiak (m³)	30.000.000	62.500.000
	Koniferoen bolumena (m³/ha)	90	210
Iturria: Hazi	Hostozabalen bolumena (m³/ha)	80	150

20. irudia. Euskadiko baso azaleraren eta zuraren stockaren banaketa geografikoa eta bilakaera

Baliabide hau faktore klimatologikoen eta merkatuko baldintzatzen dute, urtez urte aldatzen direnak, bai eta baliabidea erabiltzea zailtzen edo eragozten duten faktoreek ere:

- Irisgarritasuna eta segurtasuna: Malda % 30etik gorakoa denean, litekeena da baliabidea ustiatu ezin izatea (EAEko baso azaleraren % 49ri gertatzen zaio hori). Muga hori gainditu daiteke, biomasa baso pista batetik 50 metrora badago.
- Faktore ekologikoak: espezieak, baso formazio bereziak eta ekoizpen mugak dituzten eremu babestuenak.

Bioenergiaren aprobetxamendua Errenterian

EUSTATen (EUSTAT, s.f.) datuen arabera, Errenteriako baso azalera honako hau da:

27. taula. Errenteriako baso azalera (2016)

	Baso atlantikoa	Konifero guztiak	Hostozabal guztiak	Espezie guztiak
Errenteria	385 Ha	501Ha	1.670Ha	2.171Ha
EAErekiko %	1,086%	0,271%	0,785%	0,547%
EAE (1)	35.414Ha	184.590Ha	212.633Ha	397.223Ha

Koniferoen eta hostozabalen baso masa Euskal Autonomia Erkidego baso masa osoaren % 1 da, gutxi gorabehera. Kalkuluen arabera, Errenterian, 2030eko biomasaren aprobetxamendu energetikoa 27. taulan adierazitako Euskadiren aprobetxamenduaren % 1 izango da; gutxi gorabehera 7 ktep.

10.1.4. Hidraulikoa

Errenterian baliabide hidraulikoak daude, eta baliabidea areagotzeko potentziala ere bai, baina baztertu egin da, ingurumena babesteko arrazoiak direla eta.

10.1.5. Eolikoa

Hainbat iturriren arabera, Errenterian, batez besteko abiadura 5 m/s inguru da, eta abiadura hori ez da nahikoa baliabide hori ekonomikoki bideragarria den era batean ustiatu ahal izateko.

10.1.6. Hondar beroa

Papresa paper fabrikatzailearen industrian hondar beroa identifikatu da, 458 m³/h-ko bolumenarekin, 40°C-ko batez besteko tenperaturan. Hipotesi hauek hartu dira kontuan:

- Berraprobetxatzeko ahalmena: 3.74 GWh/urte
- Papresak eguneko 24 orduetan lan egiten du urtean 358 egunez, eta, beraz, urtean 32,2GWh-ko beroa isurtzen du.
- Bero eskaria, erabateko potentziako 1.000 operazio orduren baliokidea da.

Lortutako emaitza 3.74 GWh/urte da, Papresak askatutako hondar energiaren % 12 inguru, baina bero ponparen kontsumo elektrikoa 831 MWh/urte izango litzateke.

Berraprobetxamendu horretarako, energia termikoko hiri sare bat beharko litzateke, eta, horretarako, honako hauek beharko lirateke:

Hondar beroa bideratzeko sistema bat, makina gela batera eramango duena, eta temperatura 85°C-ra igoko duena.

Trukagailuak, temperatura hori Errenteriako berokuntza sarean txertatzeko.

Bero ponpak, bero nagusia sortzeko ekipo gisa.

Bestalde, estolderia publikoko urari erreparatzen badiogu, entalpia txikiko energia ere badago. Errenterian, 3.575 366 m³-ko bolumena du, eta 10-13°C arteko temperatura. Bero eskaeraren hipotesi berdinen arabera, emaitza 2.370 MWh/urte da, kontuan hartuta ponpen eskari elektrikoa MWh/urte dela.

Laburbilduz, Errenteriako guztiko potentzia elektrikoa 80.62 GWh/urte izango litzateke, eta guztizko potentzia termikoa, berriz, 94.51 GWh/urte.

28. taula. Errenteriako tokiko iturrien potentzialaren laburpena

Energia elektrikoa	GWh/urte	MW	
Eguzki fotovoltaikoa energia	70,12	73,22	
Hidraulikoa	10,5	1,23	
Biomasa			
GUZTIRA	80,62	74,45	
Energia termikoa *	GWh/urte	MW	Eskari elektrikoa GWh/urte
Geotermia	88,4	88,40	21,67
Industriako hondar beroa	3,74	3,74	0,83
Estolderiako hondar beroa	2,37	2,37	0,59
Biomasa	0,9		
GUZTIRA	94,51	94,51	23,09

10.2 Eskaria tokiko energia berriztagarriekin asetzeko potentziala

29. taulan ikus daitekeenez, urteko eskari termiko osoa 102.39 GWh/urte da, elektrikoa 344.21 GWh/urte eta ibilgailuena 384.18 GWh/urte. Bestalde, egungo energia sorkuntzarekin, kontsumo elektrikoa baino ez da estaltzen, eta identifikatutako potentzial osoaren % 14.1 da (30.taula).

Errenteriako ibilgailu flota guztia elektrifikatuko balitz eta sorkuntza termikoaren eta elektrikoaren potentzial osora iristeko behar diren instalazio guztiak egingo balira, udalerriko eskari termikoaren % 92 ase liteke, baina elektrikoaren % 18 bakarrik (31.taula).

29. taula. Gaur egungo energia kontsumoak, eskari termikoa, elektrikoa eta mugikortasunekoak bereizita

	Termikoa (GWh/urte)	Elektrikoa (GWh/urte)	Ibilgailuetarako gasolioa/gasolina (GWh/urte)
Etxebizitzak	69,09	48,36	
Zerbitzuak	33,29	35,59	
Industria		260,26	
Mugikortasuna			384,18
	102,39	344,21	384,18

30. taula. Egungo sorkuntza elektrikoa eta termikoa Errenterian, iturri berriztagarrietatik abiatuta

Energia elektrikoa	GWh/urte	MW	Potentzialaren %
Eguzki energia fotovoltaikoa	0,315	0,315	% 0,45
Hidraulikoa	10,500	1,232	% 100,0
Biomasa			
GUZTIRA	10,815	1,547	% 14,1
Energia termikoa	GWh/urte	MW	Potentzialaren %
Geotermia	0	0,00	% 0
Industriako hondar beroa	0		

Estolderiako hondar beroa	0		
Biomasa	0,204	0,17	
GUZTIRA	0	0,17	% 0

31. taula. Errenteriako tokiko iturrien potentzialaren eta kontsumo termikoaren eta elektrikoaren arteko alderaketa, ibilgailu parkea elektrifikatuko balitz

Kontsumoa	GWh/urte	Potentziala	GWh/urte	Autosufizientzia potentziala
Termikoa	102,39	Termikoa	94,51	% 92
Elektrikoa + Mugikortasun elektrikoa	441,44	Elektrikoa	80,62	% 18

Azterketaren amaieran zenbait gomendio daude, tokiko baliabideak erabiltzeko lehenetsunez buruz, eta aipatzen da beharrezkoa dela iturri bakoitzetik datorren energiaren gutxi gorabeherako kostu nibelatua kalkulatzeko eta kostu hori alderatzea energia mota berak (elektrikoa edo termikoa) sistema konbentzionalekin sortuta izango lukeen kostuarekin. Horretarako, energiaren kostu nibelatuak alderatu dira energia iturriaren arabera, hau da, iturri berriztagarrienak eta konbentzionalenak (32.taula).

32. taula. Iturri desberdinetatik datorren energiaren kostu nibelatuen eta iturri konbentzionalen kostuen arteko alderaketa

	Sorrera - urtekoa	Sorrera - balio bizitza	Hasierako inbertsioa	Op&Man - balio bizitza	LCOE	Konbentzionala
	kWh/kW	kWh/kW	€/kWh	€/kWh	€/kWh	€/kWh
Fotovoltaikoa	953	22310	0,0493	0,0139	0,0632	0,09-0,19
BP hondar beroa	1000	25000	0,0722	0,0178	0,0899	0,065-0,085
BP geotermia	1000	25000	0,0519	0,0400	0,0919	0,065-0,085
Eguzki energia termikoa	960	24000	0,0399	0,0137	0,0536	0,065-0,085
Biomasa	1000	25000	0,0389	0,0486	0,0875	0,065-0,085

Hona hemen aurkeztutako azken gomendioak:

- Instalazio fotovoltaikoen erabilera lehenetsia, iturri konbentzionalak baino kostu txikiagoa dutelako eta eguzki energia termikoak eskari eta erabilera mugatua duelako;
- Kasu espezifikoetan eguzki energia fotovoltaikoa eta termikoa konbinatuta erabiltzea, urte osoan zehar bero eskaria handia denean;

- Eskari termikoa asetzeko, komeni da bero ponpak lehenestea biomasaren aurrean, airearen kalitateagatik;
- Aurreko puntuan aipatutako teknologiei buruzko balorazio zehatzagoa egitea komeni da;
- Bero ponpa geotermikoak modu masiboan erabiltzearen arriskuak kontuan hartzea, eta lurzoruaren portaerari buruzko azterketa zehatzagoak eginda prebentzio neurriak hartzea, eta arriskuak eta/edo neurri zuzentzaileak identifikatzea.

11. Klimaren joera historikoak eta etorkizuneko proiektzioak

Atal honetan, egungo eta etorkizuneko klimak Errenterian izango duen inpaktua aztertuko da. Klima aldaketari buruzko ohiko hausnarketetatik, atal honetan, udalerriko energia trantsizioko estrategien plangintzan eragin zuzena duten aldaketetan jarri da bereziki arreta (hau da, tenperatura aldaketetan).

11.1 Sarrera


Gero eta nabarmenagoak dira mundu mailako kliman gertatzen ari diren aldaketak (adibidez, tenperatura maximoen errekorrak, batez besteko tenperaturaren igoera, prezipitazio erregimenen aldaketa...). Hala ere, aldaketa horiek eragin desberdina dute lurralde bakoitzean. Hiri edo udalerrri bakoitzaren kokapenaren arabera, klima aldaketak pertsonengan eta ekosistemetan dituen ondorioek modu desberdinean eta partikularrean eragingo dute lurralde horietako bakoitzeko agenda publikoan, eta guk, gizarte gisa, estrategiak planteatu behar ditugu, ez bakarrik klima aldaketa arintzekoak (horixe da Errenteriako KEIEParen helburu nagusia), baita klima berrira egokitzekoak ere, eta era horretan aurre egin ahal izango diegu etorkizuneko bizigarritasun eta konfort premiei, hiri ingurune iraunkorrek eta osasungarriak bermatzeko.

Oro har, azterketa eremu honetako politikak askoz ere gehiago zentratu dira arintze estrategien plangintzan, egokitze estrategiengan baino. Hala ere, dokumentu honetan aipatu den moduan, klima aldaketa eta horrek lurraldean dituen ondorioak aztertzen dituzten hainbat txosten garrantzitsu daude. Zehazki:

- 'Klima Aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Autonomia Erkidegoko Estrategia' (erkidegoko eskalan),
- 'Gipuzkoako Klima Aldaketaren aurkako Borroka Estrategia 2050' (probintziako eskalan), eta
- 'Errenteriako Klima Aldaketara Egokitzeko Plana' (udal eskalan).

Hiru dokumentu horien edukiak klimaren joera historikoak eta etorkizunekoak ulertzen laguntzen du, bai eta klima aldaketak Errenterian izan ditzakeen inpaktuak eta horiei aurre egiteko modua

identifikatzen ere. Gainera, KEIEP berria idaztean kontuan hartu beharreko funtsezko gaiak identifikatzen ere laguntzen du.



Iturria: IPCCtik egokitua, 2014

11.2 Klimaren bilakaera udalerrian

11.2.1. Azterketa metodologia

Aipatutako azken bi txostenetan (probintzia eta udal eskalakoak) klimaren etorkizuneko joerak aztertzeko egindako lana klima aldaketaren agertokiaren simulazioan (RCP) oinarritu da. Zehazki, RCP4.5 eta RCP8.5 agertokiak hartu dira kontuan. Jarraian, agertoki horiek azalduko ditugu.

IPCCren bosgarren txostenean isurketen 4 agertoki berri zehazten dira, kontzentrazio ibilbide adierazgarriak deritzenak (RCP, ingelesezko siglen arabera) (21. irudia). Agertoki horietan, 2100. urteko guztizko erradiazio balantzea (FR) 2,6 eta 8,5 W/m² artekoa da.

RCP ibilbideetan, klima aldaketaren ondorioak arintzeko ahaleginetatik sortutako lau agertoki planteatzen dira: isurketak oso gutxi handitu diren agertokia (RCP2.6), isurketak gutxi gorabehera egonkortu diren agertokia (RCP4.5 eta RCP6.0) eta BEG isurketen maila oso altuko agertokia (RCP8.5).

	FR	Tendencia del FR	[CO ₂] en 2100
RCP2.6	2,6 W/m ²	decreciente en 2100	421 ppm
RCP4.5	4,5 W/m ²	estable en 2100	538 ppm
RCP6.0	6,0 W/m ²	creciente	670 ppm
RCP8.5	8,5 W/m ²	creciente	936 ppm

21. irudia. Erradiazioaren ezaugarrien eta isurketa joeren laburpena, agertoki bakoitzaren arabera³


Aurreko azterlanen emaitzak kontrastatu ahal izateko, RCP4.5 agertokiaren baliokideak diren fitxategi klimatikoak sortu dira 2030. eta 2050. urteetarako, METEONORM tresnaren bidez. Eranskinean (17.1 atala), zehatz-mehatz deskribatu da etorkizuneko fitxategi klimatikoak sortzeko metodologia.

Balizko RCP agertokietatik, 4.5 (bitartekoa) aukeratu da, planetako tenperaturak Parisko Akordioan (2015) onartutako estandarraren arabera igotzea aurreikusten duena. Aldi berean, hautatutako urteei esker, KEIEPan 2030era begira zehaztutako neurrien eragina ebaluatu daiteke, eta Espainiako ekonomia 2050erako deskarbonizatze horizontearen barruan kokatu.


11.2.2. Egungo klima

Köppen-en sailkapenaren arabera, Errenteriako klima ozeanikoa edo Cfb motakoa da; negua hotz-epela da, uda freskoa, eta prezipitazioak urtean zehar ongi banatzen dira (22, 23 eta 24. irudiak).


³ http://www.oscc.gob.es/es/general/salud_cambio_climatico/nuevos_escenarios_emision_rcps.htm



22. irudia. Temperaturak eta prezipitazioak Errenterian, hilabetez hilabete. Iturria: Meteoblue



23. irudia. Errenteriako zeruaren batez besteko egoera, hilabetez hilabete. Iturria: Meteoblue



24. irudia. Temperatura maximoen batez bestekoa Errenterian, hilabetez hilabete. Iturria: Meteoblue

11.3 Tenperaturen joeraren azterketa

Jarraian, tenperaturen azterketa konparatiboa egingo da, METEONORMen bidez Errenteriarako udalerrian sortutako etorkizuneko fitxategi klimatikoetatik lortutako emaitzen arabera, eta lehen aipatutako txostenetan aurkeztutako datuekin kontrastatuko da.


11.3.1. Giro tenperatura

Urteko batez besteko tenperaturaren bilakaerari erreparatuta, argi eta garbi ikusten da tenperaturak igotzeko joera duela, etorkizunerako kontuan hartutako agertoki klimatikoa edozein izanda ere. Hamarkada honen amaierarako, tenperatura 0.65°C handituko litzateke, eta 2050erako, berriz, 1.08°C, 1995-2017 aldiko batez besteko klimatikoarekin alderatuta (33. taula). Joera hori koherentea da Euskadin 2000-2014 aldirian tenperaturak izandako bilakaerarekin, 0,8°C igo baita 1971-2000 aldiarekin alderatuta.⁴

Urteko batz bestekoa	Gaur egun	2030	2050	2030 vs 2050	2050 vs Gaur egun
Airearen tenperatura (°C)	15,19	15,81	16,3	0,65	1,08

33. taula. Airearen urteko tenperaturaren mediana egungo kliman eta RCP4.5 2030 eta 2050 agertokietan

Hileko tenperatura medianaren bilakaerari erreparatuta, ikusten da hilabete beroetan gertatuko litzatekeen hazkunderik adierazgarriena, +1 eta +1.5 °C gaur egungo klimarekin alderatuta (25. irudia eta 26. irudia).




⁴ Klima Aldaketaren aurkako 2050erako Euskal Autonomia Erkidegoko Estrategia

25. irudia. Hileko temperatura medianaren bilakaera gaur egun eta RCP4.5 2030 eta 2050 agertokietan - (Ezkerreko aldean)

26. irudia. Hileko temperatura medianaren bilakaera diferentziala gaur egun eta RCP4.5 2030 eta 2050 agertokietan - (Eskuineko aldean)

Urteko ordukako tenperaturak tartetan banatzen baditugu, hotzenetik beroenera, ikusten dugu tenperaturak goranzko joera argia duela datozen hamarkadei begira (27. irudia). Joera horren adierazgarri, 0°C-tik beherako (tenperatura izoztuak) urteko orduen kopurua % 1 murriztea aurreikusten da. Hala ere, aurreikusten den aldaketa nagusia hau litzateke: 24-30°C-ko (tenperatura beroak) orduen kopurua % 4ko handitzea 2050erako.



27. irudia. Urteko ordukako tenperaturak, temperatura baremoen arabera

11.3.2. Muturreko giro temperatura

Orduko, hileko eta urteko batez besteko balioen joera azertu ondoren, muturreko balioen joera aztertuko da. Tenperatura maximoei dagokienez, aurreko emaitzak ikusita, nabarmen igotzea espero da. Jarraian, 34. taulan, tenperatura minimoen eta maximoen bilakaera aztertuko da, hiruhilekoko eta urteko.

Bertan, urteko batez besteko tenperatura maximoak 0,77 eta 1.03°C inguru igoko direla ikus daiteke, 2030erako eta 2050erako, hurrenez hurren. Horren ondorioz, litekeena da udan nahiko ohiko bihurtzea tenperatura maximoak 35 °C-tik gorakoak izatea.





Tenperatura minimoei dagokienez, ikusten da etorkizuneko bi agertokietan 1,13 eta 1.03°C inguruko igoera gertatuko litzatekeela 2030eko eta 2050eko batez besteko tenperatura minimoetan, hurrenez hurren. Neguko hilabeteetan, berriz, batez besteko tenperatura minimoak 1.5°C igo litezke, eta 2050ean 0°C-tik gertu kokatu. Aurreko azterlanen arabera, alde hori are nabarmenagoa izan liteke XXI. mendearen amaieran (2071-2100), eta tenperaturak 3.39°C igo litezke egungo klimarekin alderatuta⁵. Igoera horrek eraginda, egun bakar batean ere ez luke izotzik egingo.

34. taula. Eguneko tenperatura minimoen eta maximoen medianaren bilakaera hiruhilekoko eta urteko, gaur egun eta RCP4.5 2030 eta 2050 agertokietan

		Temp. Mín. (°C)		Temp. Máx. (°C)	
		Mediana	Mínima	Mediana	Máxima
Enero - Marzo	Actual	-1.65	-2.85	20.35	25.65
	2030	-0.40	-2.40	21.00	23.90
	2050	-0.10	-1.70	21.30	24.20
Abril - Junio	Actual	7.75	5.70	29.90	33.35
	2030	9.10	6.60	29.50	32.75
	2050	10.10	6.80	30.45	32.85
Julio - Setiembre	Actual	14.15	11.25	33.35	35.40
	2030	14.90	12.45	32.75	36.25
	2050	15.85	12.85	34.25	36.85
Octubre - Diciembre	Actual	2.10	-1.60	24.00	28.05
	2030	2.60	-0.95	24.10	29.30
	2050	2.95	-0.20	24.50	29.30
Anual	Actual	6.28	-2.85	27.13	35.40
	2030	7.40	-2.40	27.90	36.25
	2050	7.30	-1.70	28.15	36.85
	2030 vs Actual	1.13	0.45	0.77	0.85
	2050 vs Actual	1.03	1.15	1.03	1.45

Laburbilduz (34. taula), tenperaturen igoeraren ondorioz, ia bikoiztu egingo da egun beroen kopurua (30°C-tik gorako tenperatura maximoak dituzten egunak). Halaber, gau tropikalen kopurua laukoiztea aurreikusten da (20°C-tik gorako tenperatura minimoak dituzten gauak). Hala ere, gau oso beroak (25°C-tik gorako tenperatura minimoak dituzten gauak) gutxi izango dira.

35. taula. Urteko egun beroen eta oso beroen eta urteko gau tropikalen eta oso beroen kopuruaren bilakaera, gaur egundik RCP4.5 2030 eta 2050 agertokietara

	Actual	2030	2050
Dia cálido  >30°C	5	7 x 1.4	12 x 2.4
Dia tórrido  >35°C	1	2 x 2.0	2 x 2.0
Noche tropical  >20°C	12	34 x 2.8	47 x 3.9
Noche tórrida  >25°C	1	1 x 1.0	1 x 1.0

Errenteriako Klima Aldaketara Egokitzeko Planean, bero boladen eta hotz boladen kopurua kalkulatu zen isurketen agertoki larrienerako (RCP8.5), eta bi kasuetan goranzko bilakaera hauteman zen; zehazkiago, bero boladak hotz boladak baino askoz ohikoagoak izango lirateke.

11.3.3. Ondorioak

Aztertutako datuak laburbilduz eta azterketa eremuan aplikatu beharreko aurretiazko azterlanekin alderatuz, honako hau ikusten da 2050era begira:

- **Etorkizunean, klima beroagoa izango da.**
- **Urteko batez besteko temperatura 1.08°C igoko da.**
- **Hileko batez besteko temperaturen igoera handiagoa izango da udako hilabeteetan.**
- **Gauetan ez du izotzik egingo.**
- **Bikoiztu egingo da egun beroen (>30 °C) kopurua.**
- **Laukoiztu egingo da gau tropikalen (>25°C) kopurua.**
- **Bero boladak eta hotz boladak areagotu egingo dira.**

11.4 Klima aldaketaren ondorioak Erreterian

Ingurumen baldintzetan aurreikusten diren aldaketa adierazgarriek honako hauek baldintzatuko dituzte:

- Baldintza termikoak eta, ondorioz, **eraikinen energia eskaria**.
- Eraikinetan dauden pertsonen **konfort termikoa**, batez ere **hilabete beroetan**.

11.4.1. Eraikinen bero eta hotz eskariaren gaineko ondorioak

Urteko ordukako tenperaturen profilek eragin zuzena dute instalazioen potentzian, eta, bereziki, eraikinen energia kontsumoan. Oro har, Egun Gradua⁶ deritzon adierazlea erabiltzen da orduko tenperaturen maiztasun aldaketak neurtzeko, bai eta aldaketa horiek berokuntza eta hozkuntza eskarian duten inpaktua neurtzeko ere. Beraz, beroaren eta hotzaren egun graduen aldakuntzaren kalkulua egin ondoren, atal honetan zehaztu nahi dugu etorkizunean Erreteriarako eraikin parkearen (etxebizitzak eta hirugarren sektoreko eraikinak) energia eskaria zer mailatan baldintzatuko litzatekeen klima aldatuz gero.

Berokuntzako egun graduen kalkulua

Jarraian, berokuntzako egun graduen (BEG) aldakuntzaren kalkulua dago, datozen hamarkadetako balizko klima aldaketaren ondorioz.

Kalkulatzeko datuak:

- Eraikin barruko tenperatura neguan: 21°C
- Berokuntzako ordu graduak (BOG), 15°C-ko oinarriarekin

Erabilitako formulak⁷

$$GHC_{15/15,mes} = \sum_{horas} (15 - T_{s,ext})^{15}$$


$$GDC_{15/15,mes} = \frac{GHC_{15/15,mes}}{24}$$

Etorkizuneko agertoki klimatikoen arabera (36. taula), ikusten da BEGak % 12 eta % 19 murriztu daitezkeela 2030ean eta 2050ean, hurrenez hurren, erreferentziako aldiarekin alderatuta. Emaitza

⁶ Egun Graduaren kalkulua zehatz-mehatz deskribatuta dago IDAEren *Frecuencias horarias de repeticiones en temperatura. Intervalo 24 horas* argitalpenean.

⁷ Tenperatura berdineko ordu kopurua. 24 orduko tartea

horiekin ikusten da bero beharrak adierazgarria izaten jarraituko duela, egun graduen aldakuntzak balio handia baitu.



36. taula. Berokuntzako urteko egun graduen bilakaera gaur egundik RCP4.5 2030 eta 2050 agertokietara

Hozkuntzako egun graduen kalkulua

Jarraian, hozkuntzako egun graduen (HEG) aldakuntzaren kalkulua dago, datozen hamarkadetako balizko klima aldaketaren ondorioz.


Kalkulatzeko datuak:

- Eraikin barruko tenperatura udan: 25°C
- Hozkuntzako ordu graduak (HOG), 20°C-ko oinarriarekin

Erabilitako formulak

$$GDR_{20/20,mes} = \sum_{\text{dias}} \overline{(T_{s,ext,dia} - 20)^+}$$

Etorkizuneko agertoki klimatikoen arabera (28. irudian), ikusten da HEGak % 23 eta % 48 handitu daitezkeela 2030ean eta 2050ean, hurrenez hurren, erreferentziako aldiarekin alderatuta. Emaitza horiekin, ikusten da hotz beharra areagotu egingo dela datozen hamarkadei begira. Hala ere, eraikin parkearen azterketa sakonago bat egin beharko litzateke simulazio dinamikoko tresnen bidez, ebaluatu ahal izateko hozkuntzako egun graduen areagotzeak zer inpaktu izango lukeen benetako hotz eskarian. Ildo horretan, eraikinen eguneroko balantze termikoa baldintzatuko duten funtsezko faktoreak izango dira, batetik, egunetik gauera bitarteko tenperatura aldaketa, eta, bestetik, eraikuntzako ezaugarriak (inertzia termikoa) eta operazio ezaugarriak (okupazio eta aireztapen profilak).



28. irudia. Hozkuntzako urteko egun graduen bilakaera gaur egundik RCP4.5 2030 eta 2050 agertokietara

11.4.2. Eraikin parkea birgaitzeko planen gaineko ondorioak

Emaitza horiekin eta eraikinen balio bizitza 50 urtetik gorakoa izango dela aurreikusten denez, garrantzitsua da eraikinak birgaitzeko planek gaur egungo testuinguruan duten eragina eta bideragarritasuna ebaluatzea, baina etorkizun hurbilari begira, izan ere, eraikin parkea eguneratzeko agertokietan ohikoak diren logikak aldatu egin daitezke paradigma berriaren aurrean.

Testuinguru aldakor horretan, estrategia bioklimatikoek garrantzi handia dute eraikinak etorkizuneko klima eskakizunetara egokitzeko gaitasunean (erresilientzia). Kontuan hartuta negu-uda eta egun-gau portaerak, unean uneko eskakizun termikoen balantzea egin daiteke, klimak eskaintzen dizkigun tokiko baliabide naturalak (adibidez, eguzki erradiazioa, haize nagusia, tenperatura profila) aprobetxatzeko potentziala maximizatzen.

Hala ere, muturreko fenomeno klimatikoetan, baliteke arkitektura pasiboaren zutabeak, hala nola atzipena, aireztapen naturala edo inertzia termikoaren metaketa, ez izatea nahikoak beroa hartzeko/barreiatzeko. **Horregatik, eraikinak birgaitzeko planetan, batez ere konfort termikoa bermatzeko estrategia pasiboetan oinarritzeaz gain, muturreko fenomeno klimatikoei erantzuteko unean uneko irtenbidek ere aztertu beharko lirateke.** Adibidez, muturreko hotz boladetan konfort termikoa bermatzeko neurri aktiboak txertatu beharko lituzkete (adibidez, neguko aste oso hotza, zero lainotuarekin); izan ere, hotz bolada horietan, eguzki erradiazio zuzenik ezak eta kanpoko tenperatura baxuak baldintzatu egiten dute neurriek eragina izateko potentziala, eta, ondorioz, baita eraikinetako erabiltzaileen konforta ere.

Ondorioz, eraikin parkea klima aldaketaren aurrean erresilientea izatea ahalbidetuko duten birgaitze planak behar bezala definitzeko, honako hau egin beharko litzateke:

- **Egungo eta etorkizuneko (2030) artxibo klimatikoa erabili, bero eta hotz eskariari buruzko joerak aztertzeko.**
- **Berokuntza eta hozkuntza eskaria murrizten lagunduko duten neurriak lehenetsi.**
- **Arreta berezia jarri hozkuntza sistemarik ez duten ekipamenduetan.**
- **Klima sistemak elektrifikatzearen alde egin, betiere bideragarria bada; izan ere, bektore energetiko horrek du deskarbonizazio potentzial handiena epe laburrean eta ertainean, eta, era berean, beroa eta hotza sortzeko sistemak batera txertatzeko aukera ematen du, eraginkortasun handiagoarekin.**
- **Ekipamendu publikoetan energia fotovoltaikoa ekoizteko potentziala aztertu, ekoizpen elektriko handieneko aldia eta bero eta hotz eskari handieneko aldia konbinatzeko.**

11.4.3. Espazio publikoaren gaineko ondorioak

Espazio publikoak, bai fluxuen eta erabileren diseinuagatik, bai materialtasunagatik, oro har eremu desnaturalizatu eta desatsegin gisa hautematen dituzte herritarrek. Erreterian, esaterako, eremu iragazgaituen azalera handia da, hau da, hormigoizko edo asfaltozko eremu asko daude, eta, aldiz, elementu organikoen integrazioa bigarren mailakoa da, eta, batzuetan, baita puntuala edo anekdotikoa ere.

Diseinu horrek hiriko bero uharteen efektua errazten du. Aipatutako gainazaleko materialek eragiten duten inertzia termikoaren kontzentrazioa dela eta, eguzki erradiazioaren xurgapena areagotu egiten da, eta, ondorioz, tenperatura erradiatzailea igo eta bizilagunen konfort termikoa murriztu egiten dira. Beraz, kontuan hartuta klima aldaketa eta udalerrinari buruzko etorkizuneko proiektzioen joerak, areagotu egiten da agertoki hori errealitate bihurtu eta gero eta ohikoagoa izateko probabilitatea.

Espazio publikoaren gaineko zuzeneko inpaktuei dagokienez, herritarrek egungo eta etorkizuneko espazio publikoan duten konfort termikoaren mailaren aldaketa ebaluatu behar da. Lehenik eta behin, ingurune termikoa eta horrek kanpoko espazioaren erabiltzaileen konfortean duen eragina ebaluatzean, hainbat faktore biologikok eta ingurumen faktorek eragiten dute, bai eta indize bioklimatikoek ere, hala nola UTCI (*Universal Thermal Comfort Index*) delakoak; adierazle horien bidez, klima aldaketak pertsonen konfortean izan dezakeen inpaktua ezagutu daiteke. Konfort termikoan inpaktu handiena duten ingurumen faktoreetako batzuk hauek dira:

- Airearen tenperatura
- Airearen hezetasuna
- Haizearen abiadura
- Eguzki erradiazio intzidentea


Beraz, konforta eta bizigarritasuna maximizatuko dituen hiri ingurune bat diseinatzeko, honako hauek egin beharko lirateke:

- **Besteak beste erradiazio intzidentean, haizearen abiaduran eta airearen tenperaturaren eragiten saiatu.** Faktore horiek funtsezko eginkizuna izango dute kanpoko espazio erabilezin bat (hiri eredu konbentzionala) edo erabilera eta bizitza sustatzen duen kanpoko espazio bizigarri bat (hiri eredu iraunkorra) finkatzeko.
- **Bero sentsazioa murrizten duten neurri bioklimatikoak hartu hiri ehunean, besteak beste:**
 - Itzala ematen duten elementuak jarri, adibidez zuhaitzak eta pergolak,
 - Hiri espazioak naturalizatu, zuhaitzak, lorategiak eta estalki berdeak jarritz,
 - Zoladura “freskoak” hautatu, hau da, eguzki erradiazioaren beroa xurgatu beharrean, islatzen dutenak,
 - Ur elementuak txertatu.
- **Espazio publikoaren konfort termikoa ebaluatu egungo eta etorkizuneko (hau da, 2030eko eta 2050eko) klimaren arabera, eta hiriko bero uhartearen efektua murrizteko neurrien eragina ebaluatu.**

12. 2030eko joera agertokia

Errenteriako 2030eko erreferentziako agertokiaren bidez, oinarrizko eredu bat eskaini nahi dugu, KEIEP berrian aintzat hartutako ekintzek izango luketen eragina ebaluatu ahal izateko. Horrela, erreferentziako agertoki horren bidez, honako hau islatu nahi dugu: udalerriko energia kontsumoetan eta lotutako isurketetan zer bilakaera espero litekeen, jasangarritasunaren eta energia trantsizioaren arloko politika publikorik ezartzen ez bada. Agertoki horretan, lurraldeko eragile ugarien eta, oro har, herritarren bultzada eta parte hartzerik ezean, ezarpen mugatua izango lukete energia berriztagarriak sortzeko instalazioek, ibilgailu elektrikoak edo eraikinen birgaitze energetikorako planek, beste hainbat neurriren artean.

2030eko erreferentziako agertokian, merkatuaren joera eta ingurumen joera (hau da, klima aldaketa) aldaraziko dituzten faktore nagusiek (besteak beste, parametro sozio-ekonomikoak, ibilgailu parkearen ezaugarriak, edo eraikinen erregulazio termikoa) Errenteriako KEIEPan kontuan hartutako energia kontsumoaren sektore nagusietan (hau da, etxebizitza, zerbitzu eta garraio sektoreak) duten eragina hartu dugu kontuan. Agertoki hori kalkulatzeko, *Gipuzkoa 2050: jasangarritasun energetikoaren estrategia* azterlaneko metodologia bera erabili dugu (29. irudia).




29. irudia. 2030eko joera agertokia kalkulatzeko metodologia

12.1 Udalerriko egungo energia kontsumoaren laburpena

Atal honen helburua da Errenteriako azken urteetako (2016-2019) batez besteko agertokiaren ezaugarriak azaltzea, bai eta portaera energetikoaren 'driverrak' identifikatzea ere. Horretarako, udalerriko energia kontsumoaren profilak aztertu dira, bai bektoreen arabera (hau da, elektrizitatea, gas naturala), bai sektoreen arabera (hau da, etxebizitzak, zerbitzuak eta garraioa). 'Energia kontsumoen eta isurketen inbentarioa' atalean erabilitako datuetan oinarritu da. Inbentariotik kanpo geratu dira kontsumo adierazgarriak dituzten zenbait sektore, hala nola industria edo nekazaritza. Bi sektore horiek ez daude KEIEParen jarduketa eremuan, eta, horregatik, horien etorkizuneko kontsumo joeraren kalkulu kuantitatiboa ez dugu kontuan hartu azterketa honetan.

12.1.1. Batez besteko energia kontsumoa, bektoreen arabera


Jarraian, 30. irudian, kontsumoen banaketa aztertuko dugu, energia bektoreen arabera. Ikusten denez, udalerrian gehien kontsumitzen den erregaia gasolioa da (% 63), eta, jarraian, gas naturala (% 12) eta gasolina (% 9) daude. Bestalde, kontsumitutako energiaren % 15 elektrizitatea da.



30. irudia. 2016-2019 urteetako batez besteko kontsumoen banaketa, energia bektoreen arabera

12.1.2. Batez besteko energia kontsumoa, sektorearen arabera

Jarraian, 31. irudian, kontsumoen banaketa aztertuko dugu, funtsezko sektoreen arabera. Ikusten denez, energia kontsumo handieneko sektorea garraioarena da (% 68), eta, segidan, etxebizitza sektorea (% 20) eta zerbitzuak (% 12) daude.



31. irudia. 2016-2019 urteetako batez besteko kontsumoen banaketa, sektoreen arabera


12.1.3. Batez besteko elektrizitate eta erregai kontsumoa, sektorearen arabera

Jarraian, 32. irudian, elektrizitate eta erregai kontsumoen banaketa aztertuko da, funtsezko sektoreen arabera. Erregaien grafikoan gas naturala, gasolina, PGLa eta gasolina hartu dira kontuan.


Ikus daitekeenez, etxebizitza sektoreak du elektrizitate kontsumo handiena (% 58), eta gainerako kontsumoa zerbitzu sektoreari dagokio (% 42).

Bestalde, garraio sektoreak du erregai kontsumo handiena (% 81), eta etxebizitza eta zerbitzu sektoretan gainerako % 13a eta % 6a kontsumitzen dira, hurrenez hurren.

Elektrizitatea



Erregaiak




32. irudia. 2016-2019 urteetako batez besteko energia elektrikoren eta termikoaren kontsumoa, sektorearen arabera

12.1.4. Batez besteko kontsumo termiko xehatua, sektorearen arabera


Sektore bakoitzeko kontsumoak erregai motaren arabera aztertzen baditugu, ikusten da gas naturalaren % 65 etxebizitzetan kontsumitzen dela, eta zerbitzuen sektorean, berriz, gainerako % 35a (33. irudia).

Bestalde, garraio sektoreak monopolizatzen du beste erregai batzuen kontsumoa (% 94), eta etxebizitza eta zerbitzu sektoreetan kontsumitzen dira gainerako % 4a eta % 2a, hurrenez hurren.

Gas naturala



Besteak (gasoila, GLP y gasolina)



33. irudia. 2016-2019 urteetako gas naturalaren eta beste erregai batzuen (hau da, gasolioa, PGLa eta gasolina) batez besteko kontsumoa, sektorearen arabera

12.1.5. Ondorioak

Aurkeztutako emaitzen arabera, zenbait gogoeta egingo dira, udalerriko etorkizuneko kontsumoan eta isurketetan eragin handiena izango dutenetatik eragin txikiena izango dutenetara:

- Gasolioaren kontsumoari buruzko joerak, batez ere garraio sektorean.
- Garraio sektoreko elektrizitate kontsumoari buruzko joerak, udalerrian ibilgailu elektrikoak ugaritzearekin lotuta.
- Elektrizitate kontsumoari buruzko joerak, batez ere etxebizitza sektorean, eta, neurri txikiagoan, zerbitzuen sektorean (klimatizaziorako, argiztapenerako, ekipamenduetarako eta abar).
- Gas naturalaren kontsumoari buruzko joerak, batez ere etxebizitza sektorean, eta, neurri txikiagoan, zerbitzuen sektorean, energia eskarian izandako aldaketak (adibidez, energia eraginkortasuna, klima aldaketa...) eta sistemen energia bektorean izandako aldaketak (hau da, sistemen elektrifikazioa) direla eta.


12.2 Joeraren azterketa, sektorearen arabera

Jarraian, Errenteriako 2030eko erreferentziako joera agertokiaren eraikuntzan kontuan hartutako parametroak deskribatuko dira, kontsumo sektoreen arabera. Sektore bakoitzean etorkizuneko joeren diagnostikoa egiteko datu zehatzak lortzeko eta/edo sortzeko, tokiko eskalako azterlanetan sakontzen ahalegindu gara, ahal izan den guztietan, eta, ondoren, Probintzia, Erkidego, Estatu eta Europa mailako datuak erabili dira.

12.2.1. Etxebizitza sektorea

Etxebizitza sektorean, guztizko energia kontsumoaren ebaluazioan kausa erlazio onena ezartzen duen driverra etxebizitza kopurua dela jo dugu.

Udalak emandako datuekin, 2020ko etxebizitza kopurua ez ezik, 2030erako aurreikusitako hazkundera ere kontuan hartu ahal izan dugu, Esnabide, Altzate eta Gamontoga auzoetako etorkizuneko urbanizazio planekin eta finkatuko diren poligono berrieekin bat etorritik. Guztira, etxebizitza parkea % 5.5 handituko dela aurreikusten da, eta, beraz, hazkunde hori biztanleriaren azken bi hamarkadetako (2001-2020) hazkunde lineala baino handiagoa izango litzateke⁸; biztanleriaren hazkunde hori % 1.05 izan da, hain zuzen ere.



34. irudia. Errenteriako biztanleriaren bilakaera 2001etik 2020ra. [Error! Marcador no definido.]

Etxebizitza kopuruaren bilakaerari dagokionez, erreferentziako agertokian aurreikusten da pixkanaka eraikinen birgaitze energetikoa egingo dela (urtean % 0.15).⁹ Kontuan hartuta azterlan honen ezaugarriak, ehuneko hori eraikin parke osoari aplikatu diogu, eraikuntzako edo energia eraginkortasuneko ezaugarrien arabera bereizketarik egin gabe.

Ildo horretan, joera agertokian etxebizitzaren energia eraginkortasuna hobetu egingo dela aurreikusten da, bai obra berrikoetan, bai birgaitzen direnetan, CTE-DB-HE 2013an eta CTE-DB-HE 2018an ezarritako eskakizunen arabera. Kasu horietan, etxebizitza konbentzionalekin alderatuta, energia eskaria % 50 murriztuko dela aurreikusten da, IDAEk argitaratutako 'Guía práctica de la energía para la rehabilitación de edificios' (Energia gidaliburu praktikoa, eraikinak birgaitzeko) gidaliburuan adierazitakoaren arabera.

Energia eskariaren aldaketa horiek ipar atlantikoko klimako etxebizitzetako kontsumoen banaketaren arabera aplikatu dira, berokuntzako eta hozkuntzako ehunekoen gainean, *Sech Spahousec proiektuan adierazitakoaren arabera. Espainiako etxebizitza sektorearen energia kontsumoaren azterketa.*


Aldi berean, *Pobrezia energetikoari buruzko azterketa Gipuzkoan, 2017* azterlanak agerian uzten du Gipuzkoako etxeetan gero eta gehiago ezartzen direla gazezko berokuntza sistemak, sistema elektrikoak oro har garestiagoak direlako. Joera horren aurrean, baina, 4/2019 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak, 2018/844 (EB) Zuzentarauaren eta 2018/2002 (EB) Zuzentarauaren ondorioz, 2030era bitarte erregai fosilak pixkanaka debekatzeko joatea proposatzen du, eta, horien ordez, energia iturri berriztagarriak ezartzea erabat. Horregatik, erreferentziako agertokian, obra berriko edo birgaitutako etxebizitzetan bero iturri gisa instalatzen diren sistemen % 50 elektrizitatean oinarrituta egongo direla aurreikusten da, eta gainerako % 50a biomasan.

⁹ Gipuzkoa 2050: jasangarritasun energetikoaren estrategia

Azkenik, klima aldaketak klimatizazioko energia eskarian izango duen inpaktua ere hartu da aintzat, 'Errenteriako klimaren joera historikoak eta etorkizuneko proiektzioak' ataleko emaitzen arabera.

Hurrengo irudian (35. irudia), Errenteriako etxebizitza sektorearen energia kontsumoan 2030era arte espero den bilakaera ikusten da. Aurreikuspenen arabera, eraikinen energia eraginkortasunaren hobekuntzak emaitzak izango ditu, eraikinak obra berrikoak nahiz birgaituak direla ere, eta, gainera, klima aldaketaren ondorioz, berokuntza eskaera murriztu egingo da; horrela bada, erregai fosilen (hau da, gas naturala, gasoila eta PGLa) kontsumoa % 23.5 inguru murriztuko da. Bioerregai termikoen bilakaera aztertzen badugu, biomasaren kontsumoa nabarmen handituko litzatekeela ikusten dugu, nahiz eta txikia izaten jarraituko duen (guztizko energia kontsumoaren % 3.5).

Bestalde, etxebizitza kopuruaren hazkundeak, klima sistemen pixkanakako elektrifikazioak, eta, klima aldaketaren ondorioz, hozte eskaria handitzeak eraginda, elektrizitate kontsumoa dezente igoko da (% 5.62); edonola ere, hozte sistemek oso presentzia txikia izango dute etxebizitzetan, eta guztizko elektrizitate kontsumoaren % 0.26 soilik eragingo dute.



35. irudia. Etxebizitza sektoreko kontsumoaren joera, energia bektoreen arabera

12.2.2. Zerbitzu sektorea

Gipuzkoa 2050: jasangarritasun energetikoaren estrategian 2030erako joera agertokia kalkulatzeko metodologiari jarraituz, BPGaren bilakaeraren eta zerbitzu sektoreko (batez ere pribatuko) guztizko energia kontsumoaren artean korrelazio adierazgarria identifikatzen da. Horrela, zerbitzu pribatuen sektoreko profil energetikoaren joera BPGan espero den bilakaerarekin lotuta lortzen da.

Errenteriako joera aztertzen badugu¹, ikus dezakegu azken bi hamarkadetan kontsumoak pixkanaka gora egin duela, 2007ko krisi ekonomikoari lotutako atzeraldiaren salbuespenarekin. Hala ere, badirudi 2012-2018 urteetako joera finkatu egin dela, % 1.75 inguruko hazkunderarekin. Logika bera aplikatzen badugu COVID-19aren egungo krisian, espero liteke aurki joera bera hartzea ekonomiak,



eta hazkunde ertaina izatea. Hori dela eta, BPGaren etorkizuneko joerari dagokionez, EEEK¹⁰ Euskadiko jarduera ekonomikoaren bilakaerari buruz egindako aurreikuspeneko hipotesia hartu dugu kontuan, eta, beraz, 2025era arte BPGa % 2.6ko igotzea eta 2030era arte % 2 igotzea aurreikusten da.

Eraikin publikoen energia kontsumoari dagokionez, eraikin berrien kopurua urtero % 0.5 handitzea aurreikusten da (hazkunde ertaina), Gipuzkoan eraikin berrietan espero den batez besteko bilakaerarekin bat etorri⁴, eta eraikinen energia birgaitzearen urteko tasa Europako eraikin parkearen parekoa izatea aurreikusten da (% 1¹¹). Joera hori oinarri hartuta, 2030era arte erregai fosilen erabilera pixkanaka murriztea aurreikusten dugu, eta, horien ordean, horren kutsatzaileak ez diren energia iturriak erabiltzea, 4/2019 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak ezartzen duenaren arabera. Kasu honetan, honako hau da gure hipotesia: eraikin berrien eta birgaituen % 50ek klimatizazio sistema elektrikoak aukeratuko dituztela, eta gainerako % 50ek, berriz, biomasan oinarritutako sistemak, energia termiko berriztagarriaren iturri gisa.

Era berean, eraikin publikoetako energia eskariaren gaineko aldaketak guztizko kontsumoaren % 47aren gainean aplikatzen dira, hau da, administrazio edo bulego erabilerak dituzten eraikinetako klimatizazio eskariaren gainean¹².


Hurrengo irudiak (36. irudia) zerbitzu sektoreko energia kontsumoaren joera erakusten du. Lehenik eta behin, azpimarratu behar da kontsumoaren % 90 zerbitzu pribatuei eta beste zerbitzu batzuei dagokiela, eta gainerako % 10a ekipamendu publikoen parkeari. Bigarrenik, ikusten da zerbitzu pribatuetako kontsumoa % 23 handituko litzatekeela hamarkadan zehar, BPGaren urteko hazkundearen ondorioz. Bestalde, ekipamendu publikoetan energia aurrezteko eta erregai fosilekiko mendekotasuna murrizteko neurriak hartuta, energia kontsumoa ia % 5 murriztea lortu liteke hamarkada amaierarako.

¹⁰ Euskadiko Energia Estrategia 2030

¹¹ Berrikuntza bolada European: gure eraikinak ekologizatzea, enplegua sortzea eta bizitza hobetzea


¹² Eraikinetako kontsumoak, neurketak eta aurrezki potentzialak. Hemen aurkitu daiteke:

https://diof0bc2097ng.cloudfront.net/sites/www.voltimum.es/files/fields/attachment_file/es/flipbooks/others/8/201304193788.pdf



36. irudia. Zerbitzu sektoreko kontsumoaren joera

Kontsumoaren bilakaera energia bektoreen arabera aztertzen badugu, denetan gorakada adierazgarria dela ikusiko dugu, % 12-25 ingurukoa bektorearen arabera (37. irudia). Joera horren aurrean, energia eraginkortasuna hobetzeko ekintzak eta ekipamendu publikoetan erabilitako energia baliabide berriztagarriak gorabehera, ikusten da zerbitzu pribatuetan kontsumoaren etengabeko igoera handiagoa izango dela.




37. irudia. Zerbitzu sektoreko kontsumoaren joera, energia bektoreen arabera

12.2.3. Garraio sektorea

Garraio sektoreko kontsumoaren joera hainbat aldagaik baldintzatzen dute: garraio motak, ibilgailu motaren araberako hazkundeak, energia kontsumoaren bilakaerak, banaketa modalaren aldaketak, teknologia aldaketak edo ibilgailu bakoitzari lotutako energia bektoreak.

Sektore honen joera, ibilgailu kopuruaren, ibilgailu motaren edo motorren eraginkortasunaren bilakaera eta abar aurreikustea zaila denez, txosten honetan egindako aurreikuspenak hartu dira erreferentziatzat: *Low-carbon CARS in Europe: A socio-economic assessment*¹³. Horrela, Gipuzkoako automobil parkearen bereizgarri den erregai motaren araberako banaketari¹⁴ (38. irudia) adierazitako hazkunde/txikitze proportzioak aplikatu zaizkio. 2030. urteari begira, automobil parkea % 3.9 haztea (hazkunde arina) aurreikusten da.



38. irudia. Gipuzkoako ibilgailu kopuruaren banaketa 2019an, erregai motaren arabera


Hurrengo irudian (39. irudia), automobilen energia kontsumoaren bilakaera ikusten da, erreferentziako agertokirako. 2030eko joera agertoki berean, ibilgailu berrien energia intentsitatearen efizientzia % 12 hobetuko dela aurreikusten da. Azkenik, sektorean teknologia aldaketa gertatzea ere aurreikusten da, ibilgailu elektrikoaren hedapenaren ondorioz. Aurreikuspenen arabera, 2030eko salmenten % 50 edo gehiago ibilgailu elektrikoenak izango dira¹³¹⁵, nahiz eta proiektzio horiek oso zalantzarriak izan eta lurralde eta Europa mailako politiken mende egon. Aldi berean, gasoliozko ibilgailuen proportzioak gasolinazko ibilgailuen aldean izango dituen aldaketak ere proiektatzen dira. Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko lege proposamenak gasolioari muga gehigarriak jartzea iradokitzen du; adibidez, hiri mugikortasuneko planetan zenbait neurri sartzea gomendatzen du, gasoliozko ibilgailuak

¹³ Low-carbon cars in Europe: A socio-economic assessment. European Climate Foundation

¹⁴ Trafikoko Zuzendaritza Nagusia. <https://www.dgt.es/es/seguridad-vial/estadisticas-e-indicadores/parque-vehiculos/tablas-estadisticas/>

¹⁵ Five trends transforming the Automotive Industry. PWC

hiriguneetara sartzea lehenbailehen debekatzeko, eta, beranduenez, 2025erako. Proposamen horiei gehitzen bazaie zenbait hiritan, hala nola Madril eta Bartzelona, isurketa maila jakin bat duten autoei sarbidea mugatzeko planak ezarri dituztela, bereziki gasoliozko ibilgailuei eragiten dietenak, ulertzekoa da azken urtean ibilgailu berrien salmenta nabarmen aldatu izatea. Horrekin guztiarekin, ibilgailu parkearen energia kontsumoa % 27 murriztea aurreikusten da, hau da, gasolio kontsumoa (kontsumo bektore nagusia) % 36 txikitzea, ondoren gasolina kontsumoa % 27 handitzea (hazkunde ertaina), eta, azkenik, elektrizitate kontsumoa handitzea, nahiz eta ehunekotan txikia izan.



39. irudia. Automobilien kontsumoaren joera, energia bektoreen arabera


Salgaiak garraiatzeko ibilgailuen kontsumoaren joera zehazteko, garraio arinari zein astunari dagokienez, Europako Batzordeak¹⁶ garraio mota horretarako garatu duen erreferentziako agertokian proposatutako tona-kilometroaren bilakaeraren arabera kalkulatu da urtean % 0.8ko hazkunde gertatuko dela 2030era arte.

Garraio publikoaren kasuan, 2050era arte bidaiari/km ratioa % 0.5 handituko dela jotzen da, Europako Batzordearen joera agertokian Espainiarako aurreikusi moduan. Aldi berean, 4/2019 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak zehazten du 2020tik aurrera euskal administrazio publikoek erosten dituzten ibilgailuen % 100ek erregai alternatiboetan oinarrituta egon beharko dutela, eta bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzu publikoa erregai alternatiboak erabiltzen dituzten ibilgailuetan eman beharko dela. Kasu horretan, urtean autobus flotaren % 4 berrituz gero, 2030erako ibilgailu flotaren % 50 elektrikoa izango litzateke.

Jarraian, energia kontsumoaren bilakaera orokorraren datuak aurkeztuko dira, ibilgailu motaren arabera (40. irudia). Salgaien garraioan ikus daitekeenez, kamioien kontsumoa da handiena (guztizko kontsumoaren % 41), eta % 8 handituko litzateke 2030era arte. Bestalde, beste joera

16 Sustainable and Smart Mobility Strategy – putting European transport on track for the future


adierazgarri bat garraio publikoarena izango litzateke; izan ere, pixkanaka ibilgailu berrien eraginkortasuna hobetuko den arren, hamarkadan zehar erabilera apur bat handituko da, eta 2030erako energia kontsumoa % 3 soilik murriztuko litzateke.



40. irudia. Energia kontsumoaren joera, ibilgailu motaren arabera

12.3 2030eko erreferentziako joera agertokia

Errenteriako erreferentziako joera agertokia 41. irudian ageri da. Bertan ikusten denez, joeraren arabera, Errenteriako energia kontsumoa % 2 jaitsiko da. 2019arekin alderatuta, etxebizitza sektoreko energia kontsumoa 2030erako % 4 murriztea aurreikusten da. Aldiz, zerbitzu sektoreko kontsumoa % 28 handitzea espero da, batez ere sektore pribatuko kontsumoak eraginda, zuzenean udalerriko BPGaren hazkundearekin lotuta. Azkenik, automobilen energia kontsumoa nabarmen murriztea espero den arren, salgaien kontsumoaren areagotzeak eraginda, azkenean garraio sektoreko energia kontsumo orokorra % 6 murriztea aurreikusten da. Eraitza horiek ikusita, agerikoa eta beharrezkoa dirudi energia eraginkortasuneko neurriak hartzea eta energia berriztagarrien tokiko ekoizpena areagotzea, udalerrian KEIEPko helburuetara gerturatzeko saiatzeko.




41. irudia. Udalerriko energia kontsumoaren joera, sektorearen arabera

Bestalde, energia sektoreen arabera, kontsumoen banaketan aldaketa adierazgarriak espero dira (42. irudia). Azpimarratzekoa da energia elektrikoaren kontsumoa nabarmen handituko litzatekeela 2030. urterako (% 43), 2019arekin alderatuta; beraz, eskaria asetzeko, lurraldeko elektrizitate inportazioa handitu beharko litzateke, eta, aldi berean, tokiko energia ekoizpena handitzeko aukera emango liguke. Gas naturalaren kontsumoa % 11 murriztuko litzateke, eta horrek esan nahi du etxebizitza sektoreko eta ekipamendu publikoetako kontsumoaren jaitsierak konpentsatu egingo lukeela zerbitzu pribatuen sektoreko kontsumoaren igoera nabarmena. Azkenik, gainerako hidrokarburo likidoen kontsumoa % 12 murriztuko litzateke, batez ere gasoliozko ibilgailuak erabiltzea eragozten duten politikek eta arauak lagunduta.

2030era begirako kontsumoaren proiektzioaren aurreikuspen kuantitatibo horretan, industria sektorearen portaera ere kontuan hartu beharko litzateke. Nahiz eta industria sektoreko kalkulu hori ez den txertatu, *Gipuzkoa 2050 Estrategian* badaude nabarmentzeko moduko zenbait aurreikuspen.

Esate baterako, adierazleak (hau da, industriaren balio erantsia, energia kontsumoa, BPGa eta elektrizitatearen/gasaren prezioa) aztertuta ondorioztatzen da industriako energia kontsumoekiko korrelaziorik onena industria sektorearen balio erantsiarekin lortzen dela, eta, hain zuzen ere, balio hori erabili dugu sektore horretako energia kontsumoaren joera zehazteko. Horrela bada, parametro horretan, 2001etik 2015era % 7ko jaitsiera espero da probintzia mailan. Joera horri dagokionez, erreferentziako agertokian, 2030era arte hidrokarburo likidoen erabilera pixkanaka murriztea aurreikusten da, eta, urte horretatik aurrera, hidrokarburo horien ordez gutxiago kutsatzen duten energia iturriak ezartzea, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzko Legean adierazitako moduan.




42. irudia. Udalerriko kontsumoaren joera, energia sektoreen arabera

Emaitza horietatik abiatuta, 2030eko CO₂ baliokidearen isurketak kalkulatu dira, 2019an kontsumitutako azken energia unitate bakoitzeko isurketa espezifikoaren intentsitate adierazlearen arabera (43. irudia). Horrela, etorkizuneko mix elektrikoak ez luke baldintzatuko KEIEPan ezarritako helburua, 2007ko erreferentzia urtearekin alderatuta isurketak murriztekoa, ez eta Estatuko politikek jatorri fosileko hidrokarburoen kontsumoan izango duten eragina ere.

Hurrengo grafikoan ikusten denez, 2019ko agertokian, udalerriko garraio, etxebizitza eta zerbitzu sektoreei lotutako isurketak % 10 murriztuko lirateke 2007ko egoerarekin alderatuta. Baina 2030era begira, joeraren arabera, isurketek % 7 egingo lukete gora 2007ko erreferentziako urtearekin alderatuta.

Isurketen joera sektoreka aztertzen badugu, honako ondorio hauek aterako ditugu:

- Garraio sektorean, 2007arekin alderatuta, isurketak % 6 igoko lirateke 2019rako, eta % 16, berriz, 2030erako. KEIEPko helburuak betetzeko, garraio sektorean hobekuntza nabarmenak egin beharko lirateke, haren ingurumen inpaktua murrizteko.
- Etxebizitza sektorean, 2007arekin alderatuta, isurketak % 39 jaitsiko lirateke 2019rako, baina, 2030erako, kontsumoen elektrifikazioa dela eta, isurketak % 18, bakarrik murriztuko lirateke.
- Zerbitzu sektorean, 2007arekin alderatuta, isurketak % 38 murriztuko lirateke 2019rako, baina, 2030erako, isurketak % 8 handituko lirateke. KEIEPko helburuak betetzeko, arreta berezia jarri beharko da zerbitzu sektorearen ingurumen inpaktua murrizteko; izan ere, arlo horretan, errotikako joera aldaketa bat lortu beharko da hartutako neurrien bidez.



43. irudia. Udalerriko CO₂b isurketen joera


13. Errenterriak klima aldaketaren aurrean dituen kalteberatasunen eta arriskuen ebaluazioa

Errenterriak klima aldaketaren aurrean dituen kalteberatasunen eta arriskuen azterketa *Errenterriako klimaren joera historikoak eta etorkizuneko proiektzioak* atalean lortutako emaitzetan oinarritzen da, eta aldez aurretik eskalan egindako azterlanak osatzen ditu:

- Tokiko mailan: Errenterriako Klima Aldaketara Egokitzeko Plana
- Erkidego mailan: EAEko udalerriek klima aldaketaren aurrean duten kalteberatasunaren eta arriskuaren ebaluazioa

Bi azterlan horiek IPCCren bosgarren txostenean¹⁷ (44. irudia) klima aldaketaren inpaktuak, egokitzapena eta kalteberatasuna ebaluatzeko proposatutako metodologian oinarritu ziren. Klima aldaketak arriskuak dakarzkie giza sistemiei eta sistema naturalei, eta erabilitako metodologiaren helburua da aztertzea nola ari diren aldatzen klima aldaketaren ondorioz arrisku ereduak eta onura potentzialak.

Aldi berean, *Pobrezia energetikoaren intzidentzia Errenterian* tokiko azterlanak eta *Oarsoaldeko etxebizitzaren birgaitze energetikorako plan integrala* eskualdeko azterlanak etxebizitza eraikinen parkearen egoera testuinguruan kokatzeko eta lurraldean zenbait kalteberatasun gehigarri identifikatzeko aukera ematen dute.



44. irudia. EAEko udalerriek klima aldaketaren aurrean duten kalteberatasuna eta arriskua ebaluatzeko metodologiarako erreferentziako kontzeptu esparrua. IPCC (2014).

13.1 Arriskuen eta kalteberatasunen berrikuspena eta eguneratzea

Azterlan honetan egindako klima aldaketaren azterketaren arabera, Errenterian batez besteko tenperaturak igotzea eta bero eta hotz boladak areagotzea aurreikusten da.

¹⁷ Inpaktuei, kalteberatasunari eta egokitzapenari buruzko IPCCren Bosgarren Txostena, Klima Aldaketari buruzko txostena (2014)

Klimaren baldintzak aldatzen direnean, horrek eragina du ingurumen sistemetan, eta, aldi berean, jarduera ekonomikoan eta hiri inguruneen eta bertako biztanleen osasunean eta ongizatean, bereziki zaugarrienean.

Jarraian, 37. taulan, kalteberatasunaren eta esposizioaren analisi gurutzatuaren emaitzak jaso ditugu, epe labur, ertain eta luzerako arrisku klimatikoa bereizteko asmoz. *Errenteriako Klima Aldaketara Egokitzeko Planean* (aurrerantzean, EKAEP) egindako azterketa horretatik, KEIEPa idazteko interesgarriak diren sektoreak bakarrik nabarmenduko ditugu: osasuna, kanpo hirigintza eta barne hirigintza.

37. taula. Klima arrisku sektoriala Errenterian, aztertutako hiru denbora agertokien arabera

Epe laburra

Sektorea	Kalteberatasuna	Esposizioa	Arriskua
Osasuna	Ertaina	Baxua	AR1
Kanpo hirigintza	Altua	Baxua	AR2
Barne hirigintza	Altua	Baxua	AR2

Epe ertaina

Sektorea	Kalteberatasuna	Esposizioa	Arriskua
Osasuna	Ertaina	Ertaina	AR2
Kanpo hirigintza	Altua	Ertaina	AR3
Barne hirigintza	Altua	Ertaina	AR3

Epe luzea

Sektorea	Kalteberatasuna	Esposizioa	Arriskua
Osasuna	Ertaina	Ertaina	AR2
Kanpo hirigintza	Altua	Ertaina	AR3
Barne hirigintza	Altua	Ertaina	AR3

Iturria: Errenteriako Klima Aldaketara Egokitzeko Plana

13.1.1. Barne eta kanpo hirigintza

Kanpo nahiz barne hirigintzari begira, Errenteriako hiri ingurunea **arrisku maila gorenean** dago klimak etorkizunean izan ditzakeen aldaketak direla eta. Faktore baldintzatzaileak honako hauek lirateke:

- Udallerriaren forma, egitura eta erabilerak. Kanpo hirigintzan, zehazki, lurzoru iragazgaiztuaren ehuneko handia dago, EKAEPan adierazten denez. Faktore horren ondorioz:

- beroa atzitzen eta irradiatzen duen azalera handitzen da, eta hiriko bero uharteen sorrera areagotzen da. Beroa muturrekoa eta etengabea denean (bero boladak), kanpoko espazioetan eta etxebizitzan barruan deserosotasuna areagotu liteke.
- KEIEParen ikuspuntutik garrantzi txikiagoa duen arren, euri ura iragazteko ahalmena murrizten da, eta, ondorioz, euri jasa handiak botatzean uholdeak egon daitezke, edo tokiko araztegiak gainkargatu daitezke.
- Barne hirigintzan, arrisku nagusiak dira funtsezko azpiegituren eta zerbitzuen falta edo etxebizitzaren kalitate txarra. Alde batetik, EKAEPan ondorioztatzen denez, etxebizitzaren ehuneko handi bat ahurri egoeran edo egoera txar nahiz desegokian daudelako izango litzateke. Informazio hori bat dator *Oarsoaldeko etxebizitzaren birgaitze energetikorako plan integrala* azterlanean deskribatutako udalerriko etxebizitza parkearen ezaugarriekin. Aztertutako etxebizitzaren % 37k (1980a baino lehen eraikiak) 30 cm baino gutxiagoko lodierako fatxada dute, isolatzaile termikorik gabea, eta, beraz, energia eraginkortasun txikia dute, eta masa termiko txikia egun-gau tenperaturaren egonkortasuna bermatzeko. Ondorioz, etxebizitza horietan tenperatura gorabehera handiak gertatzen dira, eta energia gehiago kontsumitzen duten klimatizazioan; gainera, konfort termiko eskasa dute neguan eta udan.

Etxebizitzak hobetzeko, oinarriko zerbitzuen defizita murrizteko eta azpiegitura erresilientez hornitzeko neurrien bidez, Errenteriako hiri ingurunearen kalteberatasuna eta esposizioa nabarmen murriztea lortuko litzateke.

13.1.2. Osasuna

Osasunaren esparruan, **arriskua ertaina** da. EKAEPan adierazten denez, arrazoiak hauek lirateke:

- Osasun zentroak eta hiri segurtasuneko zuzkidurak gertu daudelako.
- Biztanleen batez besteko adina ez delako oso altua.

Kliman gertatzen diren aldaketek herritar guztiei eragiten diete, baina aldaketa horiek pertsonen osasunean duten eragina, neurri handi batean, zenbait faktorek baldintzatzen dute, besteak beste, pertsonen zaurgarritasunak (adibidez, haien adina, aurretik dituzten gaixotasunak, esposizioa, kokapena) eta egokitze gaitasunak, faktore ekologiko, sozial, ekonomiko zein kulturei lotuta, hezkuntza eta osasun sistemen eskuragarritasuna barne.¹⁸

Osasuna epe laburrean lehentasunezko jarduera eremua ez bada ere, klima aldaketaren ondorioz espero diren inpaktuen eraginez morbiditate eta gaixotasunak (arnasbideetakoak, kardiobaskularrak, etab.) areagotuko lirateke eta giza konfortak okerrera egingo luke.

Zentzu horretan, arreta berezia jarri beharko litzateke etorkizunean bero eta hotz boladen areagotzeak eragin ditzakeen osasun arriskueta. Erkidego mailako azterketen arabera, fenomeno horrek eraginda heriotza tasa handitu egingo litzateke^{20/21}, eta, gainera konfort termikoa edo lan produktibitatea nabarmen murriztuko lirateke.

¹⁸ The european environment state and outlook 2010 synthesis

Etxebizitzan konfort termikoa bermatzeko gaitasunari erreparatzen badiogu, *Pobrezia energetikoaren intzidentzia Erreterian* tokiko azterlanak kalteberatasun energetikoko egoera batean dauden hiru errolda sekzio detektatzen ditu. Kalteberatasun hori faktore ekonomikoen (hau da, energia gastuei aurre egiteko ahalegin ekonomiko handia) eta arkitektoniko/eraikuntzako (hau da, etxebizitza tenperatura egokian mantendu ezin izatea) ondorio da. Zentzu horretan, esan liteke klima aldaketaren ondorioz berokuntzako eskaria murriztuko dela eta, horrenbestez, energia eraginkortasunik ezaren arazoa arinduko litzatekeela. Baina, hala ere, arazoak bere horretan jarraituko luke muturreko hotz boladak datozenean. Gainera, aurreikustekoa da klima aldaketak eraginda hozkuntzako eskaria handituko dela, eta inguruabar horri eraikinen energia eraginkortasunik eza gaineratuz gero, udan deserosotasun termikoa areagotu egingo dela.

13.2 Ondorioak

Azaldutakoaren ondorioz, eremu guztietan arriskuak handitzeko joera legoke argi eta garbi, aztertutako epearen arabera, laburretik luzera. Ildo horretan, kanpo eta barne hirigintza lehentasun handiko jarduketa eremua izango litzateke, epe ertainean klima aldaketaren ondorioek nabarmen eragingo baitiote.

38. taula. Lehentasunari eta jarduketari buruzko ondorioak, sektorearen arabera

Sektorea	Ondorioak
Kanpo hirigintza	Lehentasunezko sektorea da epe ertainean. Horregatik, garrantzitsua da neurriak ezartzen hastea, klima aldaketaren ondorioz etorkizunean kostu gehigarriak saihesteko. Berrikusi beharreko gaietako bat udalerriko lurzoru artifizializatuaren egoera izan daiteke; izan ere, hiriko bero uhartearen efektua eragin dezake, eta ondorioak izan ditzake espazio publikoaren eta etxebizitzan bizigarritasunean.
Barne hirigintza	Lehentasunezko sektorea da epe ertainean. Planteatu beharreko helburu nagusia etxebizitza parkea berritzea litzateke, etxebizitzan kalteberatasun energetikoa eta klima aldaketaren aurreko kalteberatasuna murrizteko; izan ere, eragina izan lezake barne erosotasunean, bai neguan, bai udan.
Osasuna	Epe laburrean ez da lehentasunezko sektorea, baina etorkizunean kaltebera bihurtzea saihesteko duten neurriak planteatu behar dira. Ildo horretan, aurreko atalekin lotutako ekintzak funtsezkoak izango dira. Neurri osagarri gisa, barneko eta kanpoko espazio publikoan babesguneak sortzeko aukera azter liteke.

14. Pobrezia energetikoa

Europako alkatetzen itunaren 2030erako esparruan, klima-aldaketa arintzeko eta ondorio saihestezinetara egokitzeko ekintzarekin batera, sinatzaileek energia seguru, iraunkor eta guztientzako eskuragarria eskaintzeko konpromisoa hartu dute. Europako testuinguruan, horrek pobrezia energetikoa arintzeko jardutea eskatzen du. Horrela, Itunaren sinatzaileek herritarren bizikaltatea hobetu eta gizarte bidezkoagoa eta barneratzaileagoa sor dezakete.

Pobrezia energetikoa honela definitzen da:

"Familia-unitate bat edo pertsona bat oinarritzko energia-zerbitzuak (berokuntza, aire girotua, argiztapena, mugikortasuna eta elektrizitatea) baimentzeko gai ez den egoera, bizi-estandar egokia bermatzeko, diru-sarrera txikiak, energia-gastu handiak eta etxeetako energia-eraginkortasun txikia konbinatzen direlako. "

European Commission, Citizen Energy Forum 2016

Pobrezia energetikoa duten familiek funtsezko zerbitzu energetiko batzuen maila desegokiak dituzte, hala nola. argiztapena, airearen berokuntza/egokitzapena, etxetresna elektrikoen erabilera, garraioa eta beste asko. Hori dela eta, pobrezia energetikoa kontuan hartu behar da arlo politiko askotan, hala nola. politika sozialetan, ekonomikoetan eta, jakina, klimaren eta ingurumenaren arloan.

14.1 Pobrezia energetikoaren ebaluazioa Errenterian

Errenteriako Udalak, 2020an, udal-pobreziaren maila neurtzeko azterlan bat eskatu zion SIIS Dokumentazio eta Azterlan Zentroari (SIIS Dokumentazio eta Azterlan Zentroa, 2020). Ikerketa horren helburua fenomeno horren intzidentzia-maila eta ezaugarri bereizgarriak aztertzea izan zen, bai udalerrian, bai hura osatzen duten unitate edo barruti txikienetan (auzoak, zentsu-sekzioak, etab.).

Jarraian, txostenaren laburpen exekutibo bat gehitu da. Egindako inkestetan eta Eustaten datu estatistikoetan oinarrituta, eta Udalak berak emanda, pobrezia energetikoaren eraginari buruzko adierazleak ezarri ziren auzoka.

Ondoko estatistika-datuen taulak, auzoz auzo, energia-pobrezian eragina duten hainbat aldagai aztertzen ditu.



39. taula. Aldagai osagarrien eragina Errenterian, auzoen arabera.


Aldagai osagarriak	Alaberga-Versalles	Beraun	Capuchinos	Nekazariritza ingurua	Gabierrot a-Larzabal	Galtzaraborda	Gaztaño-Agustinak	Iztieta	Olibet-Ugarritze	Pontik a	Zentroa
Pertsona bakarreko familia-etxeen % (2018) ¹	29,5 %	21,3 %	26,4 %	16,7 %	23,0 %	27,9 %	26,0 %	36,9 %	28,2 %	27,0 %	33,1 %
Hiru kide edo gehiagoko familia-etxeen % (2018) ¹	38,0 %	42,6 %	42,8 %	59,0 %	46,7 %	40,6 %	45,8 %	30,5 %	36,6 %	40,7 %	34,9 %
Berokuntza-sistema duten familien % (2018) ¹	35,3 %	56,9 %	63,6 %	78,9 %	77,5 %	50,1 %	37,5 %	43,8 %	67,0 %	81,8 %	57,4 %
Alokairu-erregimeneko familia-etxeen % (2016) ²	11,4 %	9,1 %	15,2 %	8,0 %	9,0 %	12,7 %	10,8 %	16,2 %	12,6 %	10,9 %	13,9 %
Atzerriko nazionalitatea duten biztanleen % (2018) ³	6,0 %	4,9 %	9,8 %	5,1 %	3,4 %	9,6 %	5,5 %	10,2 %	7,3 %	3,3 %	6,7 %
Biztanleria ez-aktiboaren % (2018) ⁴	52,2 %	56,9 %	49,6 %	51,1 %	48,0 %	53,5 %	47,1 %	55,0 %	53,7 %	52,9 %	51,2 %
Biztanleria langabetuen % (2018) ⁴	6,0 %	4,8 %	6,8 %	3,7 %	4,3 %	6,5 %	4,4 %	6,3 %	4,8 %	4,1 %	4,8 %
14 urtetik beherako biztanleriaren % (2018) ³	14,6 %	12,6 %	13,3 %	15,4 %	15,8 %	14,3 %	20,9 %	9,9 %	12,2 %	15,1 %	12,5 %
75 urtetik gorako biztanleriaren % (2018) ³	14,7 %	8,8 %	7,0 %	9,7 %	7,8 %	15,5 %	5,8 %	19,9 %	13,0 %	10,0 %	12,0 %

Iturriak: Eustat (1) Etxebizitzen udal estatistika; (2) Biztanleriaren eta etxebizitzen estatistika; (3) Biztanleriaren udal estatistika; (4) Biztanleria aktiboaren udal-estatistika.


Gutxieneko balioa; Gehiengo balioa

14.1.1. Energia-gastuei aurre egiteko ahalegin ekonomikoaren adierazleari buruzko emaitzak

Energia-gastuei aurre egiteko ahalegin ekonomiko handiko adierazleari dagokionez, intzidentzia-tasarik handienak Iztieta auzoan daude, baita zentroko zentsu-sekzio batzuetan ere. Esan genezake nolabaiteko «energia-pobreziaren poltsa» bat antzeman daitekeela zentroko zenbait guneren eta Iztieta-aren artean, eta Alaberga-Versailles eta Galtzaraborda inguruko eremu jakin batzuei ere eragiten diela.




45. irudia. Pobrezia energetikoaren intzidentzia-maila auzoka, energia-gastuei aurre egiteko ahalegin ekonomikoaren adierazlerako.




46. irudia. Pobrezia energetikoaren intzidentzia-maila zentsu-sekzioen arabera, energia-gastuei aurre egiteko ahalegin ekonomikoaren adierazlerako.

14.1.2. Etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko ezintasunaren adierazletik lortutako emaitzak

Etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko ezintasunaren adierazlearen barruan, intzidentzia-tasarik altuenak zentroko eremu jakin batzuetan (001, 003) eta Galtzarabordan (017) kontzentratzen dira, baita Iztietan (013, 014) eta Kaputxinoetan (028) ere, Lezo eta Pasai Antxorekin mugakide.



47. irudia. Pobrezia energetikoaren intzidentzia-maila auzoka, «Etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko ezintasuna» adierazlearekiko.



48. irudia. Pobrezia energetikoaren intzidentzia-maila zentsu-sekzioen arabera, «Etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko ezintasuna» adierazlearekiko.

14.1.3. Azterketaren mugak eta ondorioak

Lan honetan proposatutako estimazio-ariaketak muga esanguratsuak ditu, eta, beraz, zuhurtziaz interpretatu behar dira lortutako emaitzak.

Hala ere, lehen hurbilketa baten arabera, pobrezia energetikoa jasaten duten hirigune nagusiak identifikatzea lortu da. Adierazleen bidez lortutako zenbatespenek energia-gastuei aurre egiteko ahalegin ekonomiko handia egiten badute ere, eta etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko ezintasunak gabezia-egoera bera islatzen ez badu ere, esan dezakegu arazoari dagokionez, gehien kaltetutako eremuak identifikatzea lortu dela. Bi adierazleetan intzidentzia-maila esanguratsuak antzeman dira udal-arlo jakin batzuetan; zehazki, bi kasuetarako gabezia-indize handienak dituzten zentsu-sekzio hauek identifikatu dira:

- Iztieta auzoko 013 eta 014 zentsu-sekzioak.
- Zentroko 001 eta 003 zentsu-sekzioak.
- Galtzarabordako 017 zentsu-sekzioa.



Etxebizitza-erregimena da arrisku-faktore nagusia *etxebizitza tenperatura egokian mantentzeko ezintasunaren* adierazlerako, non etxebizitza zaharrenek erosotasun-arazo handiagoak dituzten.

Bestalde, pertsona bakarreko etxebizitzaren prebalentzia handiak, etxeko errenta-mailaren zeregin esanguratsua iradokiko luke pobrezia energetikoko egoerak azaltzeko garaian. Alde batetik, azterketak agerian uzten du okupatzaile pentsiodun bat duten pertsona bakarreko etxeen kalteberatasuna. Genero-ikuspegitik, pentsio apalak dituzten adineko emakumeek osatutako etxekoen unitateen ugartasuna kontuan hartuta, esan liteke errealitate horrek batez ere emakumeei eragingo liekeela. Bestalde, hain agerikoa ez bada ere, alokairu-erregimeneko pertsona bakarreko etxebizitzek energia-pobreziaren arrisku handiagoa izango luketela esan daiteke.

15. KEIEPeko ekintzak

Jarraian, 2020-2030 Klimaren eta Energia Jasangarriaren Planaren (KEIEP) 157 ekintzak zehazten dira Errenteriako udalerrirako.

Kontzeptualizatzeko eta diseinatzeko, aurreko kapituluetan garatutako alde aurreko datu eta informazio guztiak hartu ziren abiapuntutzat; emisioen eta kontsumoen egungo balantzea, energia jasangarriaren plan zaharraren (2015-2020) ekintzen itxiera-egoera, 2018ko egokitzapen-planaren ekintzen berrikuspena, udalerriko baliabide berriztagarrien potentzialaren azterketa, klimaren joera historikoak eta proiektzioak, kalteberatasunen tokiko ebaluazioa eta pobrezia energetikoaren eragina.

KEIEPeko ekintzak bi eremutan egituratzen dira: arintzea eta Egokitzea. Zenbait arintze-ekintzek egokitzapenean ere laguntzen badute ere, bereizi egin nahi izan dira, funtsean egikaritzean eta jardun-eremuan modu desberdinean heltzen zaielako.

Eremu bakoitzaren barruan, ildo estrategikoak eta jardun-sektoreak zehazten dira:

40. taula. Arintze-ekintzak egituratzeko eta kodetzeko taula.

Arintze-ekintzak: egituraketa eta kodifikazioa				
		Sektoreak		
		Udala [1]	Bizitegia [2]	Zerbitzuak [3]
Lerro estrategikoa	Energia efizientzia [1]	M.1.1.nº ekintza	M.2.1.nº ekintza	M.3.1.nº ekintza
	Energia berriztagarriak [2]	M.1.2.nº ekintza	M.2.2.nº ekintza	M.3.2.nº ekintza
	Mugikortasuna [3]	M.1.3.nº ekintza	M.2.3.nº ekintza	M.3.3.nº ekintza
	Hondakinak [4]	M.1.4.nº ekintza	M.2.4.nº ekintza	M.3.4.nº ekintza
	Ura [5]	M.1.5.nº ekintza	M.2.5.nº ekintza	M.3.5.nº ekintza
	Natura ingurunea [6]	M.1.6.nº ekintza	M.2.6.nº ekintza	M.3.6.nº ekintza
	Lehen sektorea [7]	M.1.7.nº ekintza	M.2.7.nº ekintza	M.3.7.nº ekintza
	Zeharkakoa [8]	M.1.8.nº ekintza	M.2.8.nº ekintza	M.3.8.nº ekintza

41. taula. Egokitzapen-ekintzak egituratzea eta kodetzea

Egokitzapen-ekintzak: egituraketa eta kodifikazioa

Sektoreak	
INGURUNE NATURALA [1]	A.1.nº ekintza
HIRI-INGURUNEA ETA AZPIEGITURAK [2]	A.2.nº ekintza
AKTIBITATEA [3]	A.3.nº ekintza
OSASUNA ETA BABES ZIBILA [4]	A.4.nº ekintza
BESTELAKOAK [5]	A.5.nº ekintza

15.1 Arintze-ekintzak

Guztira 126 arintze-ekintza definitu dira. Ekintza gehien biltzen dituzten lerro estrategikoak eraginkortasun energetikoa, mugikortasuna eta energia berriztagarriak dira. Udalen sektoreak ekintzen erdia baino gehiago dauka zehaztuta, eta bizitegi-sektoreek eta hirugarren sektorekoek antzeko ekintza-kopurua dute, 26 eta 24, hurrenez hurren.

Ekintzen banaketa hori Jasangarritasunari buruzko Euskal Legea betetzearen garrantziagatik eta udal administrazio publikoan dituen inplikazio eta helburuengatik azaltzen da.

42. taula. Arintze-ekintzen kopurua, lerro estrategikoaren eta sektorearen arabera

		Arintze-ekintzak: egituraketa eta kodifikazioa		
		Sektoreak		
		Udala [1]	Bizitegia [2]	Zerbitzuak [3]
Lerro estrategikoa	Energia efizientzia [1]	32	10	6
	Energia berriztagarriak [2]	8	4	4
	Mugikortasuna [3]	20	3	4
	Hondakinak [4]	4	3	1
	Ura [5]	4	1	1

Natura ingurunea [6]	7	0	0	
Lehen sektorea [7]	0	0	2	
Zeharkakoa [8]	6	3	3	
GUZTIRA	81	24	21	126

Definitutako arintze-ekintza guztiek KEIEPak ezarritako helburuak betetzen laguntzen diote udalari energiaren kontsumoari, energia berriztagarriari eta udalerriko emisioen murrizketari dagokienez, jarraian erakusten den taulan ikus daitekeen bezala:

43. taula. KEIEPeko arintze-helburuak.

HELBURUAK	MUGA
Udalaren energia-kontsumoa murriztea (2030)	35% 4/2019 Legea, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa
Sorkuntza berriztagarria toki-administrazioan, kontsumo elektriko eta termikoari dagokionez (2030)	32% 4/2019 Legea, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa
Udalerriko BEG isuriak murriztea (2030)	55% Klima eta Energiaren aldeko Alkatetzen Ituna

Arintze-ekintzen fitxak eranskinean daude.

15.2 Egokitze-ekintzak

Plan honetan 22 egokitzapen-ekintza daude zehaztuta. Udalak 2018an egin zuen Egokitze Planetik 20 ekintza jaso dira (FactorCO2, 2018). Horietako batzuk dagoeneko garatzen ari dira, baina gehienak hasi gabe daude (ikus 7. kapituluaren egindako jarraipen-ebaluazioa).

Ekintza gehienak, erdia baino gehiago, hiri-ingurunearen eta azpiegituren sektorekoak dira.

44. taula. Egokitzapen-ekintzen kopurua, sektorearen arabera

Egokitzapen-ekintzak: egituraketa eta kodifikazioa	
Sektoreak	
INGURUNE NATURALA [1]	2
HIRI-INGURUNEA ETA AZPIEGITURAK [2]	14
AKTIBITATEA [3]	0
OSASUNA ETA BABES ZIBILA [4]	4
BESTELAKOAK [5]	2
GUZTIRA	22

Eranskinean aurki daitezke egokitzapen-ekintzen fitxak.

16. KEIEParen 2030eko agertokia

Hurrengo hamarkadarako Errenteriako udalerrirako aurreikusitako arintze- eta egokitze-ekintza nagusiak identifikatu ondoren, eta energia-aurrezpenean eta aurreikusitako emisioetan izan ditzaketen inpaktuak identifikatu ondoren, atal honek horiek inplementatzearen inpaktua ebaluatu nahi du, KEIEP aplikazioaren 2030eko agertoki potentziala lortzeko.

Horrela, identifikatutako erreferentziazko joeretatik abiatuta (10. atala), energia-bektore bidezko eraginkortasun-hobekuntzak, espero den energia-sorkuntza eta aurreztutako isurketa baliokideak sartzen dira, proposatutako ekintzen ondorioz. Ildo horretan, matrize-hurbilketa bat erabiltzen da, jarduera-sektoreak (bizitegiak, zerbitzuak eta Udala) zeharkakoekin (mugikortasuna, ura, hondakinak, etab.) gurutzatuz. Era berean, analisisan, administrazio publikoaren jarduera-eremuak eta energiaren erabilera islatzen ditu, hala nola eraikitako ondare publikoa, parke mugikor publikoa, espazio publikoa, parkeak, hiri-paisaia, administrazio-prozedurak eta abar. Hain zuzen ere, horietako bakoitzean eskura dagoen informazioaren xehetasun-maila dela-eta, Udalaren sektorean bildutako ekintza askoren inplementazioari lotutako inpaktua gutxi gorabeherako neurriak izan zitezkeen. Hori ez da bizitegi-sektorerako eta zerbitzuetarako identifikatutako ekintzen kasua; izan ere, informazio zehatzik ez zegoenez, hipotesi-maila hain zen handia, ezen azterketa kuantitatiboa oso sentikorra baitzen azterketari egiazkotasuna emateko, inpaktua ez neurtzea erabaki zen.

KEIEP 2030 agertokiaren emaitzetatik abiatuta, ondorio batzuk ateratzen dira, eta erakusten dute plan hori gauzatzeak Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legea betetzea dakarrela. Udal eta udalerrri mailan, ingurumen-inpaktua hobetzeko helburuak zenbateraino lortu diren neurtu dezakegu:

- Udalerrri eskala:
 - o EKren arabera, CO₂eq isurketak % 55 murriztea 2030. urterako, 2007. urtearekin alderatuta..
- Udal eskala:
 - o Eraikinen eta ekipamenduen energia-kontsumoa % 35 murriztea, 2007. urtearekin alderatuta.
 - o Udal kontsumoaren % 32 tokiko energia berriztagarriaren autoekoizpenarekin estaltzea.

Azkenik, atal honek eskaintzen duen ikuspegi globalaren emaitzek aukera eman behar dute hasiera batean ezarritako KEIEParen helburuak lortzeko erronka eta aukera handienak zehazteko, eta, oro har, trantsizio energetikoa eta klima-aldaketaren ondorioetara egokitzapena zehazteko, inpaktu handiena izan dezaketenak lehenesteko, eta, beraz, hartu eta sustatu beharreko egoeraren parte dira.

16.1 Udala

Udalaren esparruan, energia-eraginkortasunari buruzko hobekuntzetan zentratzen da, eta, horren ondorioz, udal-kontsumo energetikoaren murrizketan. Hortik aurrera, iturri berriztagarrien bidez tokiko energia sortzeko zenbatespena alderatzen da, eta kontsumitutako energia guztiaren ehunekoa kalkulatu da. Horrela, bi adierazle horiei esker egiazta dezakegu udalerririk zenbateraino planifikatzen duen KEIEParen helburuak lortzea.

Hurrengo taulan, KEIEPeko ekintzen gutxi gorabeherako eraginaren eta kostuaren laburpen bat agertzen da, Udalaren sektorean.

45. taula. Ekintzen inaktuaren laburpen-etaudalerako

	Energia aurrezkia [kWh/urte]	Emisio saihestuak [tCO ₂ eq/urte]	Energia berriztagarria ekoiztea [kWh/urte]	Kostua
GUZTIRA	3.359.913,35	2.818,62	3.663.000,00	18.803.600,00 €
Guztira Energia efizientzia [1]	2.963.353,35	1.348,40	0,00	5.860.600,00 €
Guztira Energia berriztagarriak [2]	288.000,00	1.276,00	3.663.000,00	4.210.000,00 €
Guztira mugikortasuna [3]	108.560,00	4,13	0,00	8.307.000,00 €
Guztira Hondakinak [4]	--	1,09	0,00	20.000,00 €
Guztira Ura [5]	--	189,00	0,00	388.000,00 €
Guztira Zeharkakoak [8]	0,00	0,00	0,00	18.000,00 €
	Energia aurrezkia [MWh/urte]	Emisio saihestuak [tCO ₂ eq/urte]	Energia berriztagarria ekoiztea [MWh/urte]	Kostua [M€]
	3359,913	2818,615	3663,000	18,804

KEIEParen ekintzen ebaluazioak, 2030eko eszenatokia udaletxean osatzeko, ekintza horiek Planean ezarritako helburuak betetzen direla erakusten digu.

Ondorengo taulan 2007, 2019 eta 2030 urteetako emisioak, energia-kontsumoak eta berriztagarrien ekoizpena azaltzen dira, KEIEPa gabe eta KEIEP eta guzti.

Taula horretan kontuan hartu zen udalak gaur egun elektrizitatean energia berde oro kontsumitzen duela, eta, beraz, CO₂eq isuriak 2019. urteko KEIEParen helburuen barruan daude. Hala ere, KEIEPeko ekintzek energia-kontsumoen eta berriztagarrien ekoizpenaren helburuak betetzen laguntzen dute. KEIEPik gabeko agertokia kuantifikatzeko, kontuan hartu da 2030erako zerbitzuen sektorerako aurreikusitako kontsumoaren % 20ko hazkundera.

46. taula. Udaleko KEIEP agertokia, 2030. Urtea.


CO ₂ eq emisioak			Kontsumoa		Berriztagarriak	
Sektoreak	Guztira	Murrizketa erreferentzia- urtearekiko	Guztira	Aurrezkia, 2007 oinarri- urtearekin alderatuta (%)	Guztira	Kontsumo berriztagarriaren %, azken energia- kontsumoan oinarrituta
Urtea	[ton CO ₂ eq]		MWh		MWh	
2007	5034	--	16726		508	3,0%
2019	1638	67%	12606	25%	95	0,8%
2030 KEIEPa gabe	1834	64%	14119	16%	200	1,4%
2030	1011	80%	10171	39%	3663	36,0%

KEIEPa gabeko agertokirako, udalak autokontsumorako berriztagarrietan oso inbertsio gutxi egingo zituela kalkulatu zen.

16.2 Udalerria

Udalerriko isurien joerazko kalkulurako, 2030erako joerazko zenbatespena konparatzen da, KEIEParen 10. atalean aztertu zen bezala, eta eraginkortasun energetikoan aurrezteko ekoizten da, berriztagarriak sortzearekin batera, udal-, bizitegi- eta hirugarren sektoreetarako.

Hurrengo taulan, udalerriko CO₂eq isurien joerazko bilakaera konparatzen da, erreferentziako agertokiaren eta KEIEParen arabera. Ikus daitekeenez, txosten honetan proposatutako ekintzen ezarpenak udalerriri lotutako guztizko isurketen inpaktu esanguratsua ekarriko luke: 2007 oinarri-urtearekin alderatuta, erreferentziako agertokian % 12ko murrizketa izateko, KEIEP agertokian % 30ekoa izatera igaroko litzateke urte berarekin alderatuta. Hala ere, txostenean zehar eztabaidatu den moduan, ekintza askok zuzeneko eta zeharkako inpaktuak izango litzateke udalerriko energia-kontsumoan eta emisioetan, baina ez dira neurtu, haien definizioa eskura dagoen informazioarekin nekez zenbatetsi daitezkeen hipotesi-multzoko bati lotuta zegoelako.





49. irudia. Udalerriko CO₂eq isurien joera-bilakaeraren konparazioa, erreferentziako agertokiaren eta KEIEPean neur daitezkeen ekintzen ezarpenaren arabera.


KEIEPeko neurriekin isurketak % 55 murrizteko helburura iristea lortzen ez dugula egiaztatu ondoren, kontrako ariketa egitea erabaki da, alegia, bektore energetiko bakoitzeko aurrezpen espezifikoak lortu beharko liratekeela helburu hori lortzeko.

Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, ikusten da hipotesi bideragarri bat gainerako energia-kontsumoa % 35 inguru murriztea lortzea dela KEIEPeko ekintzak inplementatuta. Murrizketa hori, batez ere, inguratzalearen eta sistemen eraginkortasuna hobetzera bideratutako bizitegi-jarduerek eta zerbitzuek eta energia-jardunbide egokiek islatzen dute. Ildo horretan, diru-laguntzei, sentsibilizazio-kanpainei eta abarri lotutako ekintzak deskribatu dira. Aldi berean, jatorri berriztagarriko energia kontratatzeak eta tokiko energia berdea sortzeko plaka fotovoltaikoen instalazioak gero eta gehiago sendotzeak ere KEIEParen helburua betetzera hurbiltzeko beharrezkoa den murrizketa hori lortzen lagunduko lukete.

Bestalde, funtsezkoa izango da egungo ereduarekiko garraio-ereduan bektore energetikoa aldatzeak duen zeregina. KEIEPak udalerrri mailan dituen helburuak lortzeko, gasolioaren bektore energetikoak ere zeregin garrantzitsua izango luke. KEIEParen neurriak kontuan hartuta, batez ere udal-ibilgailuen flotaren elektrifikazioarekin lotuta egongo liratekeenak, isurketen % 5eko hobekuntza lortuko litzateke erreferentziako joera-agertokiarekin alderatuta. Beraz, KEIEPak emisioak murrizteko duen helburura hurbiltzeko, bektore energetiko horri lotutako isuriak % 45 inguru murriztea lortu beharko litzateke. Gasolioaren erabilera nabarmen murrizteak zuzenean inplikaturiko ditu herritarrak eta udalerriko industria-sektoreak.

Gogoeta horiek koherenteak dira KEIEPak udalerrri mailako emisioak murrizteko helburua lor lezakeen inpaktuarekin, baldin eta bi ekintza horiek dokumentu honetan proposatutako neurritzat eta neurgaitzat jotzen badira. Guztira, CO₂eq isuriak % 56 murriztuko lirateke. 2007 oinarri-urteari dagokionez.

Udalak etxebizitzaren eta hirugarren sektorearen esparruan proposatu dituen neurrien arrakasta bermatzeko, hasiera batean 4,8 milioi euro inguru aurreikusitako Udalaren zuzeneko inbertsioan, bi sektoreetan hainbat laguntza eta diru-laguntzatan. Ekintza bakoitza bultzatzen lagunduko duten Estatuko laguntzak gehitu beharko dira hemen.



50. irudia. Udalerriko CO₂eq isurien joera-bilakaeraren konparazioa, erreferentziako agertokiaren eta KEIEParen ekintzen inplementazioaren arabera.

17. Parte-hartzea eta zabalkundea

17.1 Parte-hartzearen antolaketa:

KEIEP berria sortzeko eta eraikitzeko, funtsezkoa izan da udalerriko eragile eta pertsona garrantzitsuek parte hartzea eta ekarpenak egitea. Azken finean, plan horren bokazioa udalaren ateetatik haratago doa, estrategia horren inplementazioan eragile instituzional, sozial eta ekonomiko gehienak inplikatzea baitu helburu.

Eragileen eta pertsonen parte-hartzea sustatzeko, hainbat ekintza garatu dira hilabete hauetan parte hartzeko eta zabaltzeko. Ekintza horiek, plan berrirako proposamenak lortzerakoan parte-hartzea bilatzeaz gain, KEIEParen beharra, formatua eta helburua eta hainbat eremutan egin daitezkeen ekintzak sozializatzea bilatu dute, egoeraren balantze kolektiboa egiteko eta klima-aldaketari tokiko konpromiso kolektibo batzuetatik heltzeak duen garrantziaren berri emateko.

Parte-hartzea ez da modu naturalean gertatzen; eragin egin behar da, eta baldintzak eta espazioak sortu behar dira parte-hartze hori arina eta egokia izan dadin. Hau da, lan-tresna bat baino gehiago, parte-hartzea, helburu bat da berez.

17.1.1. Helburuak

- Udalerriko herritarrak, eragile sozialak, akademikoak eta ekonomikoak KEIEP berriaren eraikuntzan inplikatzea.
- Plan horren garapenean gaur egun arte egindako urratsen gizarteratzea eta balantze kolektiboa egitea.
- KEIEParen planean definitutako ekintzak ezartzerakoan ezinbestekoa izango den gizarte-oinarria aktibatzea.

17.1.2. Metodologia

Hainbat eragileren parte-hartzea planifikatzeko eta antolatzeko orduan, Errenteriako errealitate soziala eta eragile bakoitzaren errealitateak hartu dira kontuan. Hau da, parte hartzeko hainbat modu eta bide aktibatu dira, hainbat eragilek edo pertsonak prozesuan modu naturalean parte hartzeko aukera izan dezaten. Gainera, komunikazio-plan bat egin da, parte-hartzearen eta dibulgazioaren garapen metodologikorako eman beharreko urratsak jasotzen dituena.



✓ Parte hartze prozesuaren berri eman Udaleko eta kanpoko eragile zein herritarrei. Ekainaren 16an **Energia Mahaiean** aurkeztu prozesua.

✓ *Se dará a conocer el proceso de participación a los agentes del ayuntamiento y a agentes sociales o a las ciudadanas.*

✓ Eragile eta herritarren proposamenen jasoketarako **Udalaren webgunea** erabiliko dugu. **Bi tailer** ere egingo ditugu zalantzak argitu eta proposamena jasotzeko.

✓ *Para poder hacer propuestas se habilitará la página web del ayuntamiento y se realizarán dos talleres.*

✓ Emaitzaren komunikazio irekia egingo da. Parte hartu duten pertsona eta **eragileei modu zuzenean** eta herritarrei eragile zein **komunikabideen** bitartez.

✓ *Se dará a conocer el nuevo PACES de forma directa a agentes que han participado en la creación.*

Udalerriko eragileak kontuan hartuta, online eta offline ekintzekin plangintza bat egin da eten digitala oztopo izan ez dadin prozesuan ekarpenak egiteko orduan. Gainera, eragile batzuek garrantzi handia dutela kontuan hartuta estrategia hori ezartzeko orduan, eragile horiekin komunikazio zuzenagoa eta hurbilagoa gauzatu da. Horretarako, udalerriko **eragile** eta pertsona interesgarrien mapa egin da.

Hedapen orokorraren, proposamen-bilketaren eta emaitzen sozializazioaren lana eragileen mapan oinarritu da, eta eragile eta pertsona horiek konpromiso- eta partaidetza-mailetan sailkatu dira, talde bakoitzarekiko komunikazio-bideak eta partaidetza-uneak erabakitzeko.

Hainbat komunikazio-bide erabili dira:

- Bilerak eta aurkezpenak.
- Telefonoa
- Zuzeneko mezu elektronikoak eta hedapen-mailing-ak.
- Udalaren webgunea eta sare sozial instituzionalak.
- Prentsa

Komunikazio-mix horri esker, hautatutako taldeetara iristea lortu da proposamenarekin.



17.1.3. Lantaldeak/bilerak

Aipatutako zuzeneko komunikazioa gauzatzeko, hainbat lantalde eta bilera egin dira, bai eta interesdun guztientzat informazio-saio irekiak ere. Horrela, zentraltasuna eman zaie Ingurumen Sailaren inguruan dauden taldeei, eta horiek indartzea bilatu da deialdi irekien bidez.

Honako ekintza presentzial hauek egin dira:

- Ekainak 16: Energiaren Mahaian ekarpenak jasotzeko prozesuaren aurkezpena eta hasiera.
- Uztailak 12: Ekarpenak biltzeko lehen tailerra. Online/aurrez aurre.
- Uztailak 15: Prozesuaren aurkezpena Ingurumenaren Aholku Batzordean
- Uztailak 28: Ekarpenak biltzeko bigarren tailerra. Online/aurrez aurre.
- Irailak 23: CAMA proposamenen bilera eta Energiaren Mahaia

Egoera soziosanitaria kontuan hartuta, ekintza kualitatiboak eta pertsonalizatuak lehenetsi ditugu ekintza kuantitatiboak gainera. Horretarako, online tresnak jarri ditugu eskura ekarpenak, bilerak eta online komunikazioak jasotzeko, bai eta parte-hartzearen kalitatea neurtzeko jarraipen pertsonalizatuko sistema bat ere.

<https://errenteria.eus/eikeperako-proposamenak-jasotzeko-galdetegia/>

17.2 Sare sozialetako eta beste bitarteko batzuetako komunikazioak

Sozializazio-lanaren beste zutabe nagusietako bat Errenteriako Udaleko sare sozialetan, hedabideetan eta tokiko komunikabideetan egindako lana izan da.

Horretarako, hainbat tresna erabili ditugu:

- Jendea ekarpenak eginez parte hartzera animatzeko mailinga, eragileen mapan oinarrituta.
- Udalaren orri ofizialean aktibatutako formularioa (<https://errenteria.eus/es/cuestionario-para-hacer-las-propuestas-al-plan-de-accion-del-paces/>). Identifikatutako agenteentzat eta interesa duen edonorentzat eskuragarri,
- Tokiko hedabideentzako prentsa-oharrak



- Errenteriako Udalaren albisteen webgunea. <https://herribizia.errenteria.eus/>
- Udaleko sare sozialak, Facebooken eta Twitterren.

Udalak hainbat profilekin komunikatzeko dituen tresnak eta kanalak erabiltzea lehenetsi da, lehendik dauden profiletatik hedapena optimizatzeko, eta berriak sortzea baztertu da. Argitaratzeko irizpideak udaleko komunikazio korporatiboari dagozkionak izan dira.

Hainbat deialdi egin ditugu prozesuan parte hartzeko, tokiko hedabideetara bidalitako prentsa-oharren bidez, eta, ondoren, sare sozialetan zabaldu dira.

Argitalpenaren adibideak:

- Diario Vasco <https://www.diariovasco.com/oarsoaldea/errenteria/nuevas-vias-realizar-20210713214022-ntvo.html>
- Diario Vasco <https://www.diariovasco.com/oarsoaldea/errenteria/inician-proceso-redaccion-20210707213424-ntvo.html>
- Herri Bizia <https://herribizia.errenteria.eus/2021/07/02/errenteriako-klimaren-eta-energia-iraunkorraren-aldeko-ekintza-plana-2030-idazteko-prozesua-abiatu-du-udalak/>
- Herri Bizia <https://herribizia.errenteria.eus/2021/07/09/klimaren-eta-energia-iraunkorraren-aldeko-ekintza-planari-ekarpenak-egiteko-aukera-ireki-du-udalak/>
- Errenteriako Hitza <https://oarsoaldea.hitza.eus/2021/07/09/klima-aldaketa-ekarpenak-errenteria-udala-keiep/>

Sozializazio-ekintzetarako erabili diren komunikazio-edukiak elkarrekin landuko ditugu Talaios, Aiguasol eta Errenteriako Udaleko Ingurumen Sailaren artean.

17.3 Kanpo-eragileek KEIEPean duten parte-hartzearen ebaluazioa

KEIEParen sorreran 34 bat pertsonak eta eragilek parte hartu dute hainbat unetan. Hona hemen daturik aipagarrienak:

- 12 pertsonak eta eragilek 60 ekarpen egin dizkiote KEIEPari online bidez.



- 14 pertsonak parte hartu dute Energiaren Mahaian, informazioa jasoz, eztabaidatuz edo ekarpenak eginez.
- 8 pertsonak parte hartu dute ekarpen-tailerretan, edo zuzenean, telefonoz edo aurrez aurre.

Parte-hartzea aktibatzekeo prozesua proiektua zabaltzea baino zailagoa izan da, seguru aski udako une koiunturalagatik, ikasturte amaieragatik eta pandemiaren ondoriozko murrizketengatik. Nabarmentzekoa da prozesuan zehar Energiaren Mahaia berraktibatu dela, KEIEPa zabaltzeko eta ezartzeko funtsezko subjektua baita.

Prozesu hori bat dator denboran HAPOn prozesuarekin, non eragile asko interpelatuak izan diren. Bi prozesuak etengabe argitzen, azaltzen eta bereizten saiatu gara, nahasketak saihesteko eta KEIEParen proposamenetan sakontzen saiatzeko.

Oro har, mapan identifikatutako agenteek prozesuari buruzko informazioa jaso dute, eta Energiaren Mahaiko agente gehienek parte-hartzea aktibatu da.

17.4 KEIEParen zabalkuntza

Hedapen-fasean komunikazio komunitarioko estrategia bat diseinatu dugu, eragileak eta parte-hartzaileak hedapen-eragile bihurtuz. Aldez aurreko hedapen-faseak eta partaidetzaren aktibazioak aukera ematen dute eragileei KEIEPa zabaltzeko eskatzeko. Ildo horretan, eragileen mapa aktibatuko da KEIEParen kanpo-komunikazioko metodoetatik haratago zabaltzeko, eta eragileen dibulgazio-baliabideak izango dira, hala nola mailing-ak, bilerak, webguneak eta abar.

KEIEParen helbururako hedapen-ekintza osagarriak proposatuko zaizkio Udalari, betiere prozesuan bertan beharrezkoak ikusten badira.



18. Ekintzen fitxak

18.1 Arintze-ekintzen fitxak



Errenteriako Udala

Neurrien deskribapena

Kodea:	M.1.1.1	Sektorea	Udala
Lerro estrategikoa:	Energia efizientzia		
Ekintzaren izena	Energiari eta airearen kalitateari buruzko auditoriak		
Deskribapena:	<p>Energiari eta airearen kalitateari buruzko auditoriak egitea 70 kW-ko potentzia termikoa baino handiagoa duten eraikinetan, bai eta potentzia txikiagoa duten eraikinetan ere, interesgarriak badira. Ekintza hori bat dator ezaugarri horiek dituzten eraikinetarako EITEa betetzearekin, eta kontuan hartzen du, halaber, "Barne Airearen Kalitatearen Urteko Berrikuspena", UNE 171330 arauaren arabera. Horren harira, honako eraikin hauetan egingo da auditoria: Galtzaraborda kiroldegia, Cristobal Gamon ikastetxea, Niessen, Udaltzaingoa, Bizarain Beraun eskola, Bizarain Langaitz ikastetxea, Udaletxea, Merkatuzar, Hiri mantenua, Biteri Koldo Mitxelena ikastetxea, Koldo Mitxelena Markola ikastetxea, Olibet zentru soziala, Oarso Zentru Zibikoa, Udal Euskaltegia-epa, Uztargi Haurreskola, Udal liburutegia, Belabaratz aterpetxea, Fanderia futbol Zelaia. Auditoriek, berez, ez dute kontsumo murrizketarik eragiten.</p> <p>Ekintza honetatik 2022-2023tik aurrera gauzatu beharreko beste ekintza batzuk etorriko dira, eta haiek bai kontsumoa murriztea ekarriko dute.</p>		
Sail arduraduna	Ingurumen azpisaila	Arduradun nagusia	Niko Bengoetxea
		Bigarren mailako arduraduna	Hiri Mantenimendua azpisaila
Hasiera urtea:	2021	Amaiera urtea:	2028
Lehentasuna	Handia	Finantzaketa	-
GIH	GIH 6 ura, GIH 7 energia, GIH 11 hiri, GIH 12 kontsumoa, GIH 13 klima,	Egokitzapenean laguntzen du (bai edo ez)	-
Esku hartze arloa	A16. Ekintza integratua (aurreko guztia)		
Tresna politikoa	B12. Energiaren kudeaketa		
Ingurumen adierazleak			
Aurreztutako energia [kWh/urtean]	EN	Itzulera tasa sinplea [urteak]	-
Saihestutako emisioak [tCO₂eq/urtean]	-	Ekoiztutako energia berriztagarria [kWh/urtean]	-
Inbertsioa			
Kostua	60000		
Aurrezki ekonomikoa	-	Kostua/tCO₂	-
Oharrak	-		



Errenteriako Udala

Neurrien deskribapena

Kodea:	M.1.1.2	Sektorea	Udala
Lerro estrategikoa:	Energia efizientzia		
Ekintzaren izena	Argiteria publikoaren energia auditoriak		
